

TOKIKOM

2015eko abendua | 154. zenbakia

ai! kor!

txorierriko aldizkaria

Ospatzeko
egunak





Lainomendi izenean... *Zorionak eta urte berri on!*

eta honekin... **2015**

LAINOMENDI TALDEA DERIO LNMND 1990 2015 **Derio**



electricidad derio elektrizitatea
Koadro elektrikoak • Instalazioak • Mantentzea

Proiektuak eta material elektrikoaren salmenta

Aizkorri Kalea, 1 - Tel/Fax: 94 454 31 48 - 48160 DERIO (Bizkaia)



ESTANKOA Ana Artiñano Inchausti

Mungialde etorbidea, 12 - 48160 Derio
Tel/Fax: 94 454 15 41
anaarti @euskalnet.net




Zorionak eta Urte Berri On

Liliak Loradenda

www.liliak.net
facebook: liliak loradenda
amalarementoria@euskalnet.net

Erdiko Kalea, 2 • DERIO
94 454 12 23



X Koltza Plaza, 2 - 4. D
48160 Derio (Bizkaia)
Tel: 944 54 27 19

Estudios 10 *Ikastegia*

Pakearen Plaza, 3 - behea
48160 Derio (Bizkaia)
Tel: 944 54 50 19



Bisitatu gure bloga

www.blogari.net/tximintx



Txepetxa aek-euskaltegia
txepetxa@euskalnet.net

*Zorionak eta urte berri on
eutsi euskaraz berba
egiteko konpromisoari*

Gorbea kalea, 5
48160 Derio
tel. 944 543 967

4	Eritxiak
5	Laburrak eta albisteak
9	Irudietan... Kerman Lejarraga, boxeolaria
11	Txorierriko lumak... Txerra Rodríguez
13	Txorierriko lumak... Gotzon Barandiaran
14	Gaztea eta... Ane Ortiz, zalduna
16	Txorierriko Zerbitzuen Mankomunitatea
18	Munduko Gabonak
24	Gabonetako egitarauak
28	Euskararen Eguna
30	Aritz Oregi eta Beñat Lekue, aizkolariak
32	Berbalagunen txokoa... Irudiak
33	Aikorrizketa... Institutua eta BAN (I)
34	Sukaldaritza
37	Denborapasa
38	Agenda



28 Euskararen Eguna



30 Aritz Oregi eta Beñat Lekue, aizkolariak



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

**HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA**
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

**DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA**
Viceconsejería de Política Lingüística



**Bizkaiko Foru
Aldundia**
**Diputación
Foral de Bizkaia**



diruz lagundutako aldizkaria



Argitaratzailea: TOTOAN, Txorierriko Euskara Elkarten Federazioa
(Lagatzu, Zorritzetan, Arrekikili, Tximintx eta Altzora)
Tel.: 94 452 34 47 / 688 86 41 35
aikortxori@aikor.com / www.aikor.com

Zuzendaria: Xabier Goienetxe

Erredakzio burua: Itxaso Marina

Erredakzio taldea: Maite Lekerika, Gaizka Eguzkitza, Juan Luis Goikoetxea
eta Aritz ta Nagel

Kolaboratzaileak: Belat Aiertza, Aner Mentxaka, Idoia Andrés, Eneritz
Larrañaga, Jon Paulo, Jesús Pedrero, Iñaki Beitia, Jabi Agirre, Jon Etxebarria
"Txontxe", Pedro Landeta, Jon Goikouria Larrabeiti, Jose Angel Mentxaka,
Oihana Astobieta, Belen Gana eta Ines Serrano

Zuzentzaileak: Alberto Mtz. de la Cuadra, Iñaki Astorkiza eta Jagoba Zallo

Publizitatea: Arantza Atxutegi (686 58 92 38)

Banaketa: Egunon

Maketatzailea: Gaizka Eguzkitza

Inprimategia: Gertu

Ale kopurua: 7.000

Lege gordailua: BI 137-02 ISSN 1578-9322

Aikor! aldizkariak ez dau bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esan-
en edota eritzien erantzukizunik.

Gabon garaia da. Denok gabiltza hara eta hona zer erosi ez dakigula. Batetik, derrigorrezkoak diren otordu amaigabeko horiek ondo hornitzeko jaki gozoez bila, eta bestetik, seme-alabei, senarrari edo emazteari eta familiako gainerakoiei zer oparitu, zer erosi aurkitu nahian. Horretan nenbilela, burura etorri zait *Gauzak* liburua, Georges Perec idazle frantziarrak idatzi zuena. Bertan erakusten zen nola gazte frantziar batzuk ia zoratu arte tematzen ziren gauzak berenganatzen, baina zenbat eta gauza gehiago eduki, orduan eta urrunago joaten zitzaien zoriontasuna. Esanguratsua iruditu zitzaidan. Gaurko gizarite honetan benetan hausnartzeko gaia.

Hausnartzekoa ere bada gaur egungo gazteek jasan duten heziketa kontsumitzailea. Txiki-txikitatik denetarik izaten ohitu ditugu. Gauza bat eskatu, eta guk bi eman. Auzokoak opari bat izan duela, gureak bi, badaezpada ere gure seintxoak trauma psikologikorik izan ez zezan. Horrela hazi ditugu, eta orain? Mila euroko soldata baten jabe dena ia-ia heroi bihurtzen dugun honetan, zer? Ezeren faltan bizi izan direnak "beharrezko gauzak" erosi ezinik. Gutxienez psikiatreek euren poltsikoak beteko dituzte, gaitz erdi.

Gauzak

Zoramen da. Gauza asko izateak, berez, zoriontasuna ekarriko baligu bezala. Gainera, zaila da zorabio horretatik alde egitea. Behartsuenak ere ez du ihes egin nahi norgehiagoka horretatik, inork ez du "txarto" gelditu nahi, eta bankuan mailegu bat eskatu behar badu ere, eskatu egingo du. Hori bai, egin duen astakeriaren arabera izango da hurrengo hilabeteetan etxean jasango duen egonezina.

Duela hamarkada batzuk Nikaraguan egon nintzen eta urte batzuk lehenago Kuban. Herrialde horietan aberatsa neu nintzela ematen zuen. Bertakoek baino gauza gehiago nuen, askozaz gehiago esango nuke, baina haiek hots erritmodun bi entzun orduko, dantzan eta alai ibiltzen ziren, pozpozik. Nik, oster, argazki kamera hartu eta argazkiak egiteko behar diren mugimendu mugatu eta baldarrak baino ez nituen egiten. Gauetan, etxeko ateak zabal-zabalik edukitzen zituzten eta berrikerian ibiltzen ziren ordu txikiak heldu arte, algaran.

Hemen ezin ditugu ateak zabalik eduki, ditugun gauza guztiak lapurtuko dizkiguten beldur. Solasean ibiltzea ere, gero eta ekin-



IÑAKI ASTORKIZA
(Irakaslea)

tza arraroagoa da, bestela begiratu gure herrietako kaleen bakardade hotza. Ez dugu astirik holakoetarako.

Pobreziak ikaratu behar gaitu, bai, baina ez normalean izaten dugun ikuskera horretatik begiratu. Gure lagun handia den Pepe Mujika Uruguako presidente ohiak dioenez, "Txiroak ez dira gutxi dutenak, asko nahi dutenak baizik. Ni ez naiz pobrezian bizi, soiltasunez bizi naiz, gauza askori uko eginez. Gutxi behar dut bizitzeko". Izan gaitzen, bada, denok aberats. Izan gaitzen zoriontsu. Dakigula, bizitza hau baino ez dugu eta.

12.34

Erlojuari begiratu diot gaur eta 12:34ak ziren. Askotan gertatzen zait hori, ordu hori ikustea alegia, eta ez da harritzekoa, egunean askotan begiratzeko baitiot erlojuari. Baina gaurkoan nire zati mistikoak, guztiari zentzua bilatu behar horretan, ordu hori ikustearren arrazoia aurkitu nahi izan du. Google-en "12:34" teklatu eta Lukas 12:34 agertu. Jesukristoren bizitza eguzkiaren zikloa azaltzeko ipuina besterik izan ez arren, zita ebanjelikoa polita iruditu zait. Zera zioen:



BEÑAT AIARTZA
(Ezjakina)

"zuen altxorra dagoen lekuan, bertan egongo da zuen bihotza ere". Errebelazio ebanjeliko horrek gogorarazi dit estudioa liburuz gainezka dudala eta nire altxorak ito egiten nauela. "Jakiteak ez du ogirik jaten" diote askok, bada, niri bihotza jan dit. Berrogei bat kilo liburu atera dudanean eta apalak hutsik ikusi ditudanean soilik hasi naiz berriro arnasa lasai hartzen. Gauza asko jakin gabe hilko naizela konturatu naiz orduan: liburu asko irakurri gabe, teleberri asko ikusi gabe, whatsapppeko txiste asko jakin gabe eta youtubeko bideo asko ikusi gabe. Eta bihotza lasaitu egin zait. Mirari ebanjelikoa, jaun andreok!

Abelino Arraindegia

Gorbea kalea, 4 - 48160 DERIO
T: 94 602 75 25-6

ADARVE KAFETEGIA

Gosariak
Plater konbinatuak
Pintxoak
GIRO ONA

Sollube, 2 DERIO Tel: 94 608 95 31

aldeko
hortz klinika
Tel.: 94 454 15 87

Anuska Prieto Aguilar
Odontologoa

Uribarri 7, beheko
48160 DERIO (Bizkaia)

- Especialitate guztiak zentro bakar batean
- Aurrekontua doan
- Especialitatea: umeak

Jota 'n 'rec diskoa kaleratu berri du Bertokok



a: Arantza Atxutegi

Zamudioko soinu tresnen elkarrekin 20 urte bete ditu eta urteurrenaren haritik, Jota 'n 'rec diskoa grabatu dute. Bertan melodia tradizionalak osatutako zortzi kanta herrikoiei jaso dituzte. Besteak beste, ikasleei hasieran irakasten zaizkien kantak eraman dituzte estudiora, hala nola *Do mri do la* eta *Hasibarrien baltsa*. Betiko korroko dantzak ere batu dituzte *Korroan* abestian, eta kalejiran jo eta kantatzen den ohiko errepertorioko abesti bereziak prestatu dituzte: *Mendian gora haritza*, *Urkiolako Lamiak*, eta *Nola bizi*

hala kanta. Azken hori Iparraldeko abestia da eta Zamudion aspalditik kantatzen da, eskolak herriari ezagutzera eman ziolako. Era berean, Amaren alabak taldearen abesti bat moldatu dute *Zamudion ere fandango!* kantarako eta kanta berri bat espresuki prestatu dute Cd-rako: *Andre nobiya*. "Lan handia egin behar izan da, baina merezi izan du, lan polita eta txukuna atera delako". Kantak eskolako txalaparta, alboka, trikitixa, pandero, euskal kantua eta dultzainako ikasleek grabatu dituzte, irakasleen eta zenbait musikarien laguntzarekin. Grabazioa Balea Musika Ideiak estudioan egin da eta Igon



Olaguenaga Bertokoko irakasleak zuzendu du.

Bertokokoek Bilbon aurkeztu zuten lan berria, abenduaren 12an. Kalderapeko tabernan 100 lagun inguru elkartu ziren eta Cdaren *making of-a* aurkezteaz gainera, ikuskizun bat ere eskaini zuten, musika, dantza eta abeslarien ahotsa uztartu zituen. Ostean, poteoan ibili ziren Zazpi Kaleetatik eta bazkaria egin zuten Kafe Antzokian. Jota 'n 'rec diskoa aurkeztu zuten eta ekitalditxo hunkigarria ere egin zen, zeinetan batzuek azaldu baitzuten Bertoko haientzat zer den eta zelako ekarpena egin dien. Ostean, Zazpi Kaleak berriro bete ziren Bertokoko musikariek eta haien doinuez. "Egun polita izan zen. Lanean jarraitzeko gogotsu agertu gara guztiok. Gainera, taldera haize berriak etorri direla nabaria da, Bertokoren baitan zerbait berria eratzen ari dela". Jota 'n 'rec diskoa eskuratzeko, Bertoko taldekoei eskatu behar zaie.



KAFETEGIA
IAZI
JATETKEA
Jata kalea, 2 - DERIO
Tel.: 944 54 29 56



HAUR-MODA
TxIMELETA
Gernikako Arbola, 8 DERIO
94 454 14 35



Familia osorako
kalitatezko arreta,
zure esku
Zainduz Berrak
Logopedia
Podologia
Kirmasajak
Txorierri etorbidea, 9 - Loria | Anaga erakina | 48160 DERIO
94 454 01 01 | 657 79 54 45
info@dentalezainduz.com | www.dentalezainduz.com



Vulcanizados DERIO
Herriko plaza, 5 beheko 48160 Derio (Bizkaia)
Tel: 94 454 00 21



Peñasko
arraindegia
Mendiko, 4
48170 Zamudio
Tel.: 94 452 0808

GALAISA
Estetika eta ile-apaindegia
94 453 04 85 - 94 471 10 51
Sabino Arana 1-3. SONDIKA



auzoKide
Finken administratzailea
LORENA GAMBOA AGUIRRE
Txorisolo 4, behe B 48150 SONDIKA
634 410 470
aузokidefncas@gmail.com



Goiri'78 s.l.
Zerbitzu ofiziala
Izarza Pol. 48150 Sondika Bizkaia
94 453 25 15
94 453 39 31



yedra floristas
Mikel Zarate, 2 - 48150 Sondika - Bizkaia
Telefona: 94 453 14 57 - yedrainterflora@hotmail.com



IRATXO
gazotegia
Tarta personalizatuak
trufak
tortak
pastelak
pastak
Mikel Zarate, 2 - 5. leihoa - Sondika, 48150 - 94 453 89 19



Txorierrri
Rocio Astorkia Bordegaray
Kepa Herguedas Manso
Maria Conde Bilbao
Ainhoa Rodriguez Mella
Milaire 6, behe - 48150 - Sondika (gettokiaren aurrean)
T.: 944 711 639 - Larmialdiak: 670 985 885 - www.txorierrri.com



Eternal running lasterketa, Loiu

Parte-hartzaileek hainbat oztopo gainditu behar dituzte Eternal running lasterketan, hala nola lokatzaz betetako igerilekuak, eskalatu beharreko alanbrehesiak eta saltatu beharreko pneumati-koak.

Lasterketa munduko hainbat herritan egiten da eta horietako bat Loiu izango da datorren urteko edizioari begira. Lasterketa apirilaren 10ean egingo da bertan. Josu Begoña alkateak azaldu duen moduan, kandidatura aurkeztu zuten "ahal den neurrian, Loiu mundu mailan ere zabaldu nahi dugulako". Era berean, kandidatura hainbat arrazoiengatik onartu zen. "Udalerrri honek aukera ematen du kirol ekitaldiak zentralizatzeko, eta gobernu taldeak jarrera argia erakusten du iraunkortasunerako eta ingurumena zaintzeko. Era berean, proba hartzeko, ezinbesteko baldintzak dira hainbeste jende hartzeko gaitasuna izatea, kirol kultura eta, batez ere, horrelako ekitaldi handi bati aurre egin ahal izateko gaitasun logistikoa izatea".



a: eternal-running.com

Eternal running lasterketan hainbat lekutatik etorritako 5.000 pertsona inguru batu ohi dira. Loiu lanean hasi dira antolakuntza arloan. "Boluntario talde bat osatu beharko da. Udalerriko kultur eta kirol dinamizaziorako bigarren plan estrategikoa abiatu dugu, eta Eternal Running lasterketa dugu plan horren buru. Horretan ere herritarrek eskuzabal-tasunez lagunduko dutela uste dugu. Azken batean, Loiu lasterketaren munduko zirkuituan sartuko da Buenos Aires, Bogota,artzelona, Madril... bezalako hiriekin batera". Lasterketa Galdakaon ere egingo da urriaren 22an.



Festa de Nadal, Derion

El Casal Bilbao elkarte berria da eta Bizkaian bizi diren katalanek eta haien familiek osatzen dute. Elkarrekin Kataluniako ohiturak eta kultura mantendu eta sustatzea du helburu, eta horretarako hainbat ekitaldi antolatzen dute urtean zehar. Azkena Derion egin zuten abenduaren 19an. Derioko frontoian 60 lagun inguru batu ziren Festa de Nadal ospatzeko. Askari handia antolatu zuten eta txotxongilo-ikuskitzuna ere egon zen. Horrezaz gainera, Tió ohitura egin zuten. Tió txerri itxura duen enborra da. Umeek jaten ematen diote eta beteta dagoenean, makil batez jotzen dute buruan, barruan dituen opariak ipurditik bota ditzen.

Emakume Pilotarien I. Topaketa

Euskal Herriko Emakume Pilotarien I. Topaketa azaroaren 21ean jokatu zen Larrabetzun. Txapelketa Txokoan hango emakume pilotarien elkarteak antolatu zuen, eta partidak Bizkaiko, Nafarroako, Gipuzkoako, Arabako eta Errioxako pilotariak jokatu zituzten. Gainera, Kataluniako pilotariak ere gonbidatu zituzten topaketan parte hartzera. Ikusmin handia zegoen eta jendetza handia batu zen Larrabetzuko frontoian. Oso giro polita egon zen topaketan zehar, bai pilotarien artean, bai ikusleen artean. Bizkaitarrak nagusitu ziren.



Zamudioko Rallyaren III. edizioa

a: Pedro Landeta

Zamudio Racing eta Real Peña Motorista de Vizcaya elkarteek Zamudioko Rallya antolatu zuten, hirugarren aldiz, azaroaren 28an. Gidariak lehian sartu ziren Rallya irabazteagatik, noski, baina baita Euskadiko Txapelketa irabazteagatik ere. Ander Arana eta Arkaitz Kobeaga (Peugeot 309 GTI) gidariek txapela biak jantzi zituzten. Anderrek eta Arkaitzek iaz ere irabazi zuten Euskadiko Txapelketa. Txapeldunek Roland Holkek eta Iñigo Fernándezek (Subaru Impreza) osatutako bikotea zein Aitor Saizarrek eta Gorka Aginagak (Renault Clio Sport) osatutakoa gainditu zituzten helmugan. Guztira, 39 gidarik hartu zuten parte lasterketan.

Haien artean, Aitor Arandiak eta Zugaitz Dañobeitiak Zamudio Racing elkartearen taldean hartu zuten parte.

Oso eguraldi txarra egin zuen egun horren aurreko astean, eta zaila zen maila ona ematea, bideak bustita eta lokatzaz beteta zeudelako. Baldintzarik onenak egon ez arren, zortzi gidarik baino ez zuten lasterketa bertan behera utzi behar izan. Haietako bat Mario Pérez faboritoe-tako bat izan zen. Horri esker, ziur asko errazagoa izan zen Aranaren garaipena. Zamaudioko Udala lasterketaren babes-lea izan zen, eta horregatik antolatzaileek eskerrak eman nahi izan dizkio. Gainera, laguntzaileen laguntza ere aipatu dute. Izan ere, hainbat lagunek 12 ordu eman zuten lanean Rallya behar bezala egiteko.



a: Jon Etxebarria "Txontxe"

Urrutiri omenaldia

Azaroaren 28an, 150 lagun bildu ziren Igor Urrutikoetxearen gurasoen etxean, Lezaman, eta han, orain dela urte bi bere omenez landatutako haritzaren inguruan, omenaldia eskaini zioten. *Agurra* dantzatu zen eta Etxahun Lekuek bertso batzuk botatu zituen. Laurentzi Hormaetxea lezamarrak eta Gaizka Zurriarain LAB sindikatuko ordezkariak ere hitz batzuk esan zituzten Urrutikoetxearen oroimenez. Ondoren, gogora Igor ekartzen dieten oroigarriak ipini zituzten bertaratutakoek haritzean. Oxangoiti tabernan herri bazkaria egin zuten eta bertan 40 lagun batu ziren. Bazkalostean lau berbaldi labur eskaini ziren: Lezamako herri-gintza, internazionalismoaren kriminalizazioa, langile borrokaren beharra eta Kataluniako prozesu independentista. Berbaldietan hauek hartu zuten parte: Izarne Agirre Lezamako EH Bilduko zinegotzia; Gabi Basañez Askapenako kidea; Ainhoa Etxaide LABeko idazkari nagusia; eta Edu Lucas Herrialde Katalanetako IAC sindikatuko ordezkaria.



Alaia
fruta-denda
Etxez etxeko zerbitzua
Bertoko produktuak
Telleri, 5
48170 Zamudio
94 485 05 81

ama
taberna
Leizaola plaza, 7 - behea (ZAMUDIO)
94 655 93 69

HARATEGIA
ALBERTO
Arbolantxa, 4
T: 94 452 08 25
48170 ZAMUDIO

AmAr
ileapaindegia
Asteartea-ostiralea:
9:00-19:00
Laburuntza:
8:00-13:30
Uribe plaza, 1 behea
Zamudio
94 4520419

GAMINIZ
JATETXEA
Tel/Fax: 944 317 025
email: gaminiz@gaminiz.com
Ibaizabal 212, Parke Teknologikoa
48170 Zamudio - Bizkaia
GPS: 2°51'41" N 43°17'37" W
www.gaminiz.com

Emakumeen kontrako bortizkeria, KO

a: Jon Paulo eta Jesús Pedrero

Zamudiobox elkarteak emakumezkoen boxeo-emanaldia antolatu zuen azaroaren 20an, Zamudioko frontoian. Klubeko hiru neskek entrenamendu saioa egin zuten jendeaurrean eta ostean, zaletu mailako borroka batzuk egin ziren. Haietan boxeolari hauek hartu zuten parte: Ane Rodríguez (Zamudiobox), Leire Bengoetxea eta Naiara Olmedo (Izarrak Getxoko Boxing Kluba), Jessica Brunet (Bilboboxin gimnasioa), Izar Martinez eta Nekane Martín (Sestaoko MT Boxing), eta Eneritz Bolinaga (Manpogym Bilboko gimnasioa). Batez ere azken biak dira aipatzeko modukoak, Eneritz aurtengo Espainako txapeldunordea delako, eta Nekane, Euskadiko txapelduna.

Saioak erakustaldiak baino ez ziren izan, baina antolatzaileek azpimarratu dute jende asko batu zela neskak ikusteko, eta giro aparta egon zela. Borrokek helburu bikoitza izan zuten: alde batetik, emakumeen kontrako bortizkeria salatzea; eta bestetik, emakumezkoen boxeo bultzatzea. "Boxeo modan dago. Hamabost egunean behin borrokaren bat antolatzen



da han edo hemen", esan digu Josu Naranjo Zamudiobox elkartearen kideak.

Zaletuen mailan, neskek minutu biko lau round egiten dituzte, kaskoa jantzita. Mutilek, aldiz, hiru minutuko hiru asalto egiten dituzte, eta kasko barik. "Neskak hasiberriak dira boxeoan eta beste kirolean gertatzen den moduan, agian maila ez da mutilen bezain ona, baina garrantzitsua da neskak boxeoan hasi egin direla. Borroka antolatzea zaila da: dirua, baimenak, areto aproposa.... Hala ere, guk jarraituko dugu boxeo bultzatzen,

bai gizonezkoena, bai emakumezkoena. Horretarako, aipatu behar dugu Zamudioko Udalak izugarritzko laguntza ematen digula".

Bestalde, egitarau oparoa prestatu zen Zamudion zein Txorierriko gainontzeko herrietan, emakumeen kontrako bortizkeria salatze eta haren aurkako neurri eraginkorrak hartze eskatzeko. Beste batzuen artean, desprintzesatze tailerrak antolatu ziren, gazteei eta nagusiei zuzendutako hitzaldiak, ipuin kontakariak eta *Women in black* ekintza.



Donostia Europako Kultur Hiriburua izango da 2016an eta urte osoan zehar ekitaldi sorta zabala egingo da bertan,

DAT-en argazkiak, Donostian ikusgai

argazki erakusketa bat horien artean. Erakusketa Gipuzkoako Argazkilari Elkar-teak antolatu du, eta Euskal Herriko eta Errioxako argazki taldeak gonbidatu ditu han parte hartzera. Derioko Argazki Taldea (DAT) gonbidapena jaso duten elkar-teetako bat izan da. Talde horren kideek argazki bana emango diote Gipuzkoako elkarteari, Donostian ikusgai ipin ditzaten. Argazkiok 1m x 1mkoak izango dira.

DATeko kideek urtarilaren 25ean, astelehenean, aurkeztuko dituzte jendeaurrean Donostiako erakusketan parte hartzeko aukeratu dituzten argazkiak. Ekitaldia 19:30ean izango da Kultur Birkan.

Informazio gehiago:
datfotoderio.com
facebook.com/datfotoderio

BOLALEKU
JATETXEA

10. URTEREUNA

Garaioa: 1 - LEZAMA
94 455 41 10

• Hainbat menu
• Karla
• Ospakizunak
• BOLAPARK

Club Hípico Aretxalde

Pony club - Zaldiak ikasteko
Aisialdiak landak - Apolo zerbitzua
Salto - Txangoak - Animalien heziketa

Telefonoa:
IBON - 659 90 75 88
Aretxalde auzoa, 89 • 48196 LEZAMA

BASALBEITIKO
TXAKOLINA

Hizkaiko Txakolina
Txakolina

Hizkaiko Txakolina
Txakolina

Gaitortza auzoa, 37
(LEZAMA)
94 455 61 46



Kerman Lejarraga | Edonorrekin borrokatzeko prest

Ezkerraldean, Alba, *Highlander* Eskoziako arrazako behia. Eskuinaldean, "Morgako Errebolberra" (1992), Bizkaia eta Euskadiko txapeldun amateurra. Kerman edonorekin borrokan egiteko prest dago. Hamazazpi urterekin hasi zen boxeoa lagun on batek hala gomendatuta, eta bere ametsik handiena Estatu eta nazioarteko mailako titulu ofiziala eskuratzea da. Boxeoak diziplina eman dio gazteari, eta era berean, desengainua hartu du kirol harekin: "Futbola dela kausa, hildakoak izan dira era batean edo bestean; boxeo gau-ekitaldietan ordea, ez dago istiluen kontrako poliziarik, telebistak kirol bortitza dela erakutsi arren".

Testua eta argazkia: Jon Goikouria Larrabeiti
www.atomikastudio.com – facebook.com/atomikastudio



Baserritarren Alkartea
Lezama S. Coop.

Aretxalde, 21 BIS
48196 LEZAMA
☎ 94 455 60 16
e-mail: lezama@fcae.org
Bazkideak: 144

Pentsu naturalak



lezama
consultorio veterinario
albaitaritza klinika
www.consultorioveterinariolezama.com

J.R. Galdona Madariaga
BI-515



Medikuntza orokorra
Txertaketak
Parasitoak hil
Mikrotxipa
Kirurgia
EKG
Analisiak
Ospitalizazioa
Ekografiak



servicio de urgencias
24h

94 455 56 19 Aretxalde, 21bis • 48196 Lezama



**SARRIKOLA
OGITEGIA**

Euskal pastela
Baserriko ogia
Bizkotxoak
Hainbat tarta



Sarrikola, z/g Larrabetzu
Tel.: 94 455 83 37
619 78 58 84



**PELUKERIA
ESTETIKA**

94 455 81 44

Angulien 2. beheko Larrabetzu-Bizkaia



**TXORIERRI
Inmobiliaria**

Justo Ajuria, 2. Sondika - Bizkaia
Tel./Faxa: 94 471 12 82 - 94 471 18 11
txori-erri@euskalnet.net

karregandik gertu

ARLOKUTLARITZA - TASAZIOA
ALOKATZEAK - ENKALDATZEAK
SALEROKETAK
SEGUROS BILBAOEN AGENTZIA




LARRABETZU
☎ 94455 81 97
**LOROÑO BEHEKOA
(BIZKAIA)**

Etxeko soziolinguistika euskalduna

TXERRA RODRIGUEZ | Soziolinguistikan aditua

Sutondoko kontuak da Txerra Rodriguezen lehendabiziko liburua. Soziolinguistikaren dibulgazioa abiapuntutzat hartuta, derioztarrak 80ren bat kontu idatzi ditu liburua osatzeko. Ez da liburu teknikoa, arina eta laburra baizik, eta egilearen iritziz, edozein euskaltzaleri interesatu ahal zaio.

“Duela zortzi urte blog bat sortu nuen, Garaigoikoa, eta azken urteotan irakurle batzuek animatu ninduten nire artikulua liburu batean jasotzera. Nire lehenengo asmoa “Juan Zelaia” sarira aurkeztea izan zen, baina 2014an eta 2015ean ez zen saririk antolatu. Liburua idatzita nuenez, argitaratzea erabaki nuen”, esan digu Txerrak, liburuaren sorrera-prozesuaren berri emateko. *Sutondoko kontuak* Soziolinguistikaren inguruko istoriotxoak dira, ez ipuinak. “Liburua irakurriz gero, ematen du kontuek ez dutela zerikusirik haien artean, baina irakurle azkarrek topatuko dute lotura (kar, kar)”.

Soziolinguistikaren dibulgazioa da liburuaren ardatz nagusia. “Nire blogak hasiera batean beste helburu batzuk zituen, baina denboraren poderioz, hauxe bera izan da gakoa, Soziolinguistikaren ezagutza ahal den neurrian zabaltzea. Liburua ez da blogaren jarraipena, baina egia da gaiak eta estiloa berberak direla”. Soziolinguistika hitzak oso akademikoa dirudi, baina Txerrak azaldu digu oso liburu erraza dela irakurtzeko. “Liburua ez dago Soziolinguistikan adituak direnei zuzenduta. Nire asmoa dibulgazioa da eta horregatik, zerbait laburra egin nahi nuen, batez ere euskaldunok erakartzeko”.

Soziolinguistika hizkuntzaren eta gizartearen arteko harremana aztertzen duen zientzia da. “Soziolinguistika gusta-

“Dibulgazioa da nire asmoa eta horregatik, zerbait laburra egin dut, batez ere euskaldunok erakartzeko”

tzen zait hamaika lekutatik edaten duela: Zuzenbidetik, Antropologiatik, Zientzia Politikoetatik... Magma itzela da. Liburuan, esate baterako, aititeren istorioak jaso ditut. Berak ogia banatzen zuen Bilbon. 1976an greba handia egon zen ogia domeketan ez egiteko, eta azkenean grebaren aldekoek irabazi zuten. Hala ere, beranduago, denok dakigun moduan, domeketan ere hasi ziren ogia saltzen. Horren aurrean, nire aititek erabaki zuen domeketan ogia ez erostea. Aititeren intsumisio ekintza hori Soziolinguistikarekin lotu dut. Euskaldunok egunero intsumisio ekintza txikiak egiten ditugu gure bizitzaren esparru guztietan euskaraz egiteko”.

Izenburuak, *Sutondoko kontuak*, etxera eramaten gaitu, baina ez da hori egileak egin nahi izan duen aipamena. “Liburuak gauza autobiografiko batzuk baditu, noski, baina tituluak adierazten du Soziolinguistikaren adar bat, nire lagun batek



esaten duen moduan, etxeko soziolinguistika. Nik ez dut Soziolinguistika hartzen bakarrik hizkuntzen eboluzioa ikeritzen duen zientziazat; daukagun egoera aldatzeko zientziazat hartzen dut nik, egunero-egunero euskaldunok euskaraz egiteko ditugun arazoei aurre egiteko zientziazat, hain zuzen ere. Hori da etxeko soziolinguistika niretzat”.

Autoedizioa

Txerrak berak argitaratu du liburua, inongo argitaletxeren laguntzarik gabe. “Liburua hasiera batean Pamiela argitaletxera eraman nuen eta haiek baietza eman zidaten, argitaratzeko moduko liburua zela. Ez da 2015ean argitaratu eta 2016rako argitaratzeko esan zuten. Azkenean, nire kabuz egitea erabaki nuen. Handik aurrera, lagunez aprobetxatze hutsa izan da liburua (kar, kar). Lagunei eskatu nien maketatzea, portada egitea, zuzentzea... Autoedizioa polita da prozesu guztia menperatzen duzulako, baina beste alde batetik, oso gogorra da, batez ere banaketa. Euskal Herriko probintzia guztietan liburua salgai egotea lortu dut: Bilbon, Algortan, Santurtzin, Arrasaten, Donostian, Gasteizen, Iruñan, Donibane Garazin... Eta noski, Derion, Arinka liburdendan.

Prozesu gogorra izan da, eta etorkizunean beste liburu bat idazten badu, Txerrak ez du uste autoedizioa berriro egin-

go duenik. “Nahiz eta gero eta liburdenda txiki gehiago egon Euskal Herrian, ez dago esate baterako autoedizioan egiten den musikak duen sarerik. Beste liburu bat egiteko materiala badago, 900 artikulua inguru idatzita baditut-eta, baina momentuz ez dut beste libururik idazteko asmorik”.

Euskaltzale derioztarra

Txerra Rodríguez (Derio, 1977) oso aktiboa da gizarte-sareetan. Due la zortzi urte Garaigoikoa bloga sortu zuen eta jakin barik, hazia jarri zuen bere lehenengo liburua argitaratzeko. Derioztarra izan arren, Bilbon bizi da, Alde Zaharrean, baina egia esan, bizitza batez ere Txorierri egiten du. Tximintx Derioko euskara elkarteak kidea ere bada.

Txerrak Emun enpresan egiten du lan. “Soziolinguistika egunero-egunero aplikatzen dut bertan. Euskara teknikaria naiz eta hainbat enpresatan nago lanean, batez ere norberaren euskara plana garatzen. Batzuetan itzulpenak eta zuzenketak ere egin behar izaten ditut”.


**hotela
jatetxea
aretxarte**

Teknologi Parkea - Eraikuntza, 200
48170 ZAMUDIO - (BIZKAIA)
Telefonoa: 94 403 69 00
Faxa: 94 403 69 01
e-mail: hotel@aretxarte.com
e-mail: reservas@aretxarte.com
www.aretxarte.com


**ASADOR
ARAMENDI**

**EZKONTZAK
BATAIOAK
BANKETEA
JAUNARTZEAK**

Arteaga auzoa, 119
Tlfnoa.: 94 452 11 58
ZAMUDIO


Inaki 94 455 65 08
Jabi 94 452 14 31

**Magalarte
Txakolina**

ARETXARTEA LAGUNA ETA BIZKAIA
Bizkaiko Txakolina
Denominación de Origen
75 cl.
10,75 % vol.



**TABERNA
GAZTEDE**

Eguneko menuak
Ospakizunak

Aretxalde, 141
48196 Lezama
944 554 422
gazteditaberna@gmail.com



**KIMA
Landarak**

LANDARE APAINGARRIA

Gaitolza 59 • Tel.: 94 455 51 00 • Fax: 94 455 61 77
48196 LEZAMA (BIZKAIA)



LEJARRENE JATETXEA

Garaioitza auzoa, 12 • LEZAMA • T: 94 455 65 46



GOXO-GOXO LOHTIZUN

Astotsaldet: zeharik
Oñe egutero
Postelak eukergiz

Garaioitza, 77c
48196 Lezama
94 455 42 72
goxogoxolohitzun@hotmail.com



**ELORRIETA
INSTALACIONES**

ETXE- ETA INDUSTRIA-ELEKTRIZITATEA

Uribe kalea, 12 beheko Derio 48160
94 454 03 86
639 57 98 48 - 639 58 25 47

Egia ote?

GOTZON BARANDIARAN | idazlea

Idazle larrabetzuarrak *Gidariaren okerra* eleberria kaleratu barri dau. Bahiketa baten istorioa aurkeztu deusku bertan, baina ez da kontakizun sinple bat. Egileak hariak lotzeko proposamena egiten deutso irakurleari, zer dan egia eta zer guzurra aztertzeke eta bere ondorioak aterateko.

t: Itxaso Marina / a: Susa argitaletxea

Bitor Larralde gaixotasun neurodegeneratibo eta sendaezina daukan taxi-gidari bat da. BECen mundu mailako biltzarraren egiten da gaitz neurodegeneratiboaren gainean, eta Bitorek uste dau hango adi-tuetako batek badakiala zein dan bere gaixotasunaren sendabidea. Eta bahitzea erabagiten dau. Entzute handiko neuroziru-jaua da, segurtasun-neurri handiakaz dabilena, eta horregaitik ezin izango dau berak bakarrik bahitu. Lagun talde bat behar dau horretarako, eta Saioa bere lobiari eta Arantza Ojangurenari egiten deutse laguntzeko proposamena. Arantza gerra-argazkilari ospetsu bat da, baina glaukomea dauka eta itsu gelditzen ari da. Bera da bahiketaren narratzailea. Bigarren mailako beste pertsonaia bi be badagoz: droga eta prostituzio munduan nahasia dagoan aberatsen gidari bat, eta luxuzko prostituta baten mada-mea. "Batek be ez dau egia osoa kontaten; danek gordeten dabe zerbait. Bitorek oso ondo planifikau dau bahiketea, eta narratzaileak istorioa kontau ahala, irakurleari ohararazoko deutso Bitorek oso ondo dosifikau dauela informazioa. Guztiek oso ondo erabili dabela informazioa".

Halan bada, Barandiaranek ariketa bat proposatzen deutso irakurleari: istorioan azaltzen diran hariak lotzea eta bere ondorioak ateratea, amaieran ez ezik, bidean be bai. "Irakurleak gogoeta egin beharko dau zergaitik ezkututzen dauen Bitorek informazioa bat, eta beste bat zergaitik ez. Arantza be hariak lotzen hasten danean konturatzen da pertsonaiek zergaitik jokatzen daben jokatzen daben


*"Bizitzan be geure
buruari galderak
etengabe egin
behar deusaguzala
uste dot"*

*"Irudia ezinbesteko
bihurtu jaku eta
seguru nago horrek
eragina eukiko
dauana literaturan"*

moduan". Izan be, larrabetzuarraren esanetan, hariak lotzea ezinbesteko ariketea da gaur egungo errealitatea ulertzeko. "Bai azken urteotan irakurri ditudan liburuek, bai euskereazko kantangintzan aztertzen nabiltan zein idazleak eta sortzaileak diran lagunengandik ikasi dodanak halan erakutsi deuste. Gauza batzuk oso modu argi baten kontaten deuskuez, ustez, baina gero, azpian, beste zerbait dago".

Teatroa

Absurdo, surrealismo-ikutua be bada-go *Gidariaren okerra* eleberrian, eta egileak teatro eran idatzi dauz alkarrizketak idea hori indartzeko. Mundua dan moduan dala eta, ondorioz, alternatibarik ez dagoala sinetsarazo gura deuskuela pen-



*“Etenbako guzur horri
aurre egin gura
deutsagunontzat
derrigorrezkoa da
absurdoa irudimenaz
erabiltea”*

tu dauan indarraren adibide garbiak dira. “Irudia ezinbesteko bihurtu jaku eta inork ez dau berbea bakarrik gura, berbea eta irudia gura dau. Telefonoaren emotikonoak be erabilten doguz berbearen ordeztatik, guztiok gara argazkilariak, guztiok bideogileak... eta seguru nago horrek eragina eukiko dauana literaturan”.

Zirimiria

Gidariaren okerra liburu laburra da, baina oso bizia eta trinkoa, eleberri baliztatetik nahiko hurre dagoana. “Ez dago poliziarik, baina bai ustelkeria, bahiketa bat, heriotza... Nahiko iluna da zentzu horretan”. Giroa be iluna da eta istorioa Bilbo euritsu baten dago kokatuta. “Hori be sinbolikoa da. Guzurrak sartzen deuskuezala irudikatzeke, gu ia konturatu gabe, euria erabili dot. Euri mehea da, zirimiria... ez dozu ia nabaritzen, baina akabuan busti egiten zaitu”. Barandiaranen laugarren liburua da, eta esan deuskun moduan, oso ondo pasau dau hori idazten. Aurreko liburuetako aztarna asko dagoz bertan. Esate baterako, guzurra/egia gaia ardatz nagusia zan *Katamalo* lanean be. “Etenbako guzur horri aurre egin gura deutsagunontzat, beste mundu alternatibo bat gura dogunontzat, derrigorrezkoa da surrealismoa, absurdoa irudimenaz erabiltea, izan be ezin dogu agintean dagozan gobernuen eta multinazionalen hiztegi edo terminologia berbera erabili. Askatasuna ez da gauza bera hareentzat, eta niretzat. Hareek urratu, desitxuratu dabe, eta niretzat beste zerbait da”.

Ohiko lekuez gainera, *Gidariaren okerra* Susa argitaletxearen webgunean be topa daiteke. Liburua on line irakurtzeko aukerea dago bertan, eta deskargau be egin daiteke: doan ala 3,63 euro ordainduta. Euro bi idazlearentzat dira, eta gainerakoa, kudeaketa gastuetarako.

tsaten dau, eta komunikabideen iturri ofizialeetatik jatorkuna be absurdoa dala. “Argi dago munduan, Mendebaldean, Euskal Herrian... agintzen dabenak teatro egiten ari dirala; gezurretan nahita ari dirala. Alkarrizketak teatro eran ipini izanak helburu hau dau: kontaten deuskue-na aztertzea, esaten deuskuenetik egia zer dan aztertzea. Gainera, bizitzan be geure buruari galderak etengabe egin behar deutsaguzala uste dot, eta komunikabide ofizialeatik, agintezaleen aldetik eta multinazionalen gobernatutako estatu-erakundeetatik jatorkun informazio horretatik egia zer dan aztertzea”.

Horri aurre egiteko, kontakizun alternatibo bat zelan eraikitzen dan be eron dau liburua. Arantzak argazkien bidez kontau dauz gauzak orain arte, baina itsu

gelditzen ari dala, zalantzak etorri jakoz: gure memoria, gertatzen jakuna, zelan kontau behar da? Argazkien bidez? Berben bidez? Argazki eta berben bidez? Horreek egileak berak daukazan zalantzak dira. Bere eretziz, literatura izugarri aldatu da zinema asmatu zantetik hona, eta berbea bigarren maila batera zokoratzen ari da, irudiaren mesedetan. Halan, arreta handia ipinten da deskribapenetan, eta berbea deskribatzeko bitarteko bihurtu da. “Hori kontetako, ez dakit ete dan hobe-ia ikus-entzunezkoa... Literatura ataka horretan dagola uste dot eta, aurrera egiteko, berbaren bidezko narratibetan sakondu behar dogula”. Gogoetak be ez dira literatura-lanetan gehiegi agertzen, eta alkarrizketak oso lotuta dagoz irudiei. Gizarte-sareak, webguneak... irudiak har-

"Nire ama zaldiz ibiltzen zen gaztetan, eta betidanik gustatu zaizkio zaldiak. Nik zazpi urte nituenerako, amak utzita zeukan zaldiz ibiltzeari, baina argazkiak eta ikusi nituen eta neu ere zaldiz ibili nahi nuela esan nion", aipatu digu Anek. Gaur egun 13 urte ditu eta Zamudion eta Bilbon bizi da. "Ama Zamudiokoa da, eta aita, Bilbokoa. Asteazken zehar Bilbon bizi gara, eta nik bertan ikasten dut DBHko bigarren maila, baina asteburuetan eta oporretan Zamudiora etortzen gara amaren familiarekin egotera".

Anek Aretxalde Zalditegian entrenatzen du, Lezaman, asteazken birritan. "Leku eroso da Zamudiotik zein Bilbotik gertu dagoelako. Gainera, trena ere hurbil dago". Aneri animaliekin egoteagatik eta lagunak egiteagatik gustatzen zaio zaldiz ibiltzea. "Zaldiaren gainean ordu bate inguru ematen dut, baina zaldiz ibiltzea hori baino askoz gehiago da. Ni etortzen ez banaiz, zaldia ez da kortatik irteten, zaldia nire menpe dagoelako: ibili baino lehen zaldia orraztu eta garbitu behar dut, eta ostean ere bai. Batzuentzat lan desatsegina izango da, baina nik gustura egiten dut. Bestetik, oso giro polita dago Aretxalden, familia txiki bat bezala gara".

Hilean lehiaketa bat edo bi egiten dira, batez ere udaberrian eta udan, eguraldi hobea dagoenean. Anek zazpi urte daramatza zaldi gainean, eta lehenengo urteetan zaldi-klubek antolatutako erakustaldietan hartzen zuen parte. Hala ere, aurrerapausoa eman du eta aurten hasi da txapelketa ofizialetan lehiatzen. Azaroan lehendabiziko aldiz joan zen Euskadiko Txapelketara, eta laugarren postuan bukatu zuen. Emaiza ona dirudien arren, Ane ez da oso pozik agertu. "Ni kaskar ibili nintzen, baina aurkariak ere bai. Penagarria izan zen. Etorkizunean, beste lehiaketa batzuk etorriko dira eta hobeto egingo dut".

Saltoak

Hipikan hainbat maila eta modalitate daude, baina Anek saltoak lantzen ditu, hau da, zirkuitu batetik ibili behar du zaldiz, eta bidean dauden oztopoak gainditu. "Heziera da beste jarduera nagusia, eta ezin da saltoekin konparatu, oso ezberdinak direlako. Nik saltoak nahiago ditut, dibertigarriagoak iruditzen zaizkidalako". Lehiaketetan parte hartzeko, zaldunek federatuta egon behar dute. Gai-

Zaldirako grina

ANE ORTIZ | zalduna

Aurten Ane Ortizek (Bilbo, 2002) irabazi du Zamudioko zaldi-derbya eta, aitzakia horretaz baliaturik, hobeto eza-gutu nahi izan dugu gazte zamudioztarra. Ane Bilbo eta Zamudio artean bizi da, eta zazpi urte zituela hasi zen zaldiz ibiltzen. Zaldiak bere pasioa dira eta gaur egun Ane bere mailako Euskadiko zaldunak onenenetariko bat da.



nera, azterketa batzuk gainditu behar dituzte, nork bere maila agerian uzteko, eta horren arabera sailkatzen dira zaldunak. Guztira zazpi maila daude, eta Anek laster lortuko ditu bai bosgarrena, bai seigarrena.

"Zaldiz ondo ibiltzeko, pasioa behar duzu. Zeure azpian izaki bizidun bat daramazu, eta zaldunak oso harreman berezia sortu behar du zaldiarekin. Eta horretako ez dago sekretu handirik, zaldia eta zalduna elkarrekin denbora pasa-



*"Zure azpian izaki
bizidun bat daramazu,
eta zaldunak oso
harreman berezia sortu
behar du zaldiarekin"*

tzea, besterik ez. Zaldiak ez dira makinak, gizakion moduan, apeta edo joera batzuk dituzte, eta haiekin moldatu behar duzu. Batzuetan, nahiz eta oso zaldi zintzoa izan, gerta daiteke egun batean oso txarto jokatzea".

Anek zaletasuntzat hartzen du hipika eta ez daki etorkizunean zer egingo duen. "Nirekin dabilzan neska askok Albaitaritza ikasiko dute, baina nik ez, argi daukat. Txikitan bai, albaitaria edo dantzaria izan nahi nuen, baina oso txarto dantzatzuten dut (kar, kar). Profesionala izatea oso zaila da eta horretarako, lehenik eta behin dirutza behar da. Normalean zaldun profesionalak beste lan bat dute, askotan irakasleak dira, esate baterako".

Profesionala izatea garestia da, bai, baina umetan zaldiz ibiltzea ez da jendeak uste duen bezain garestia, Aneren amaren arabera. "Hipika eskola-kirola da, saskibaloia edo futbola bezala. Hamar eskolako bonoak 50 euro balio du. Egia da zaldunaren adina eta maila gora joaten diren heinean, prezioak ere gora egiten duela, baina hipika ertaineko mailetan ere ez da hain garestia. Eskola-kirolek kanpo, hamar eskolako bonoak 140 euro balio du. Eta serioago hartuz gero, gehiago ordaindu behar da. Zaldiari eustea, eskolak, txapelketetan izena ematea, fitxa federazioan...".

sarrerren salmenta
www.bbk.es
bbk

SONDIKAKO KULTUR ETXEA
Cestero kalea, 1 (elizaren atzean)
Telefona 94.453.64.13

SARRERAK AURRETIK EROSTEKO: TXARTELDEGIAN
Edozein ekintza hasi baino ordu bat lehenago

AVIONES DE PAPEL
96' (2D)
Urtarrilak 2, 18:00
Urtarrilak 3, 17:00 (EUSKARAZ)

EN EL CORAZON DEL MAR
121'
Urtarrilak 2, 20:30 (2D)
Urtarrilak 3, 19:30 (3D)

EL SECRETO DE AMILA
AG (2D)
Urtarrilak 9, 18:00
Urtarrilak 10, 17:00 (EUSKARAZ)

SUFRAJISTAS
106' (2D)
Urtarrilak 9, 20:30
Urtarrilak 10, 19:30

THE SNOW QUEEN
AG - EUSKARAZ (2D)
Urtarrilak 16, 18:00
Urtarrilak 17, 17:00

STAR WARS: EL DESPERTAR DE LA FUERZA
136'
Urtarrilak 16, 20:30 (2D)
Urtarrilak 17, 19:30 (3D)

CARLITOS Y SNOOPY: LA PELICULA DE PEANUTS
93' AG (2D)
Urtarrilak 23, 18:00
Urtarrilak 24, 17:00

PALMERAS EN LA NIEVE
(2D)
Urtarrilak 23, 20:30
Urtarrilak 24, 19:30

PADRES POR DESIGUAL
96' AG (2D)
Urtarrilak 30, 18:00
Urtarrilak 31, 17:00

POINT BREAK
Urtarrilak 30, 20:30 (2D)
Urtarrilak 31, 19:30 (3D)

ZINEA

2D: 4 €

3D: 6 €

*oharra: produktoreen behar-izanen arabera programazioak aldatuak jasan ditzake

Antzerki eskola Txorierrin

Txorierriko Mankomunitateak, Totoan Txorierriko Euskara Elkarteen Federazioarekin elkarlanean, gazte eta helduentzako antzerki eskola bat jarri nahi du martxan Txorierrin mailan.

Orain arteko antzerki eskolek, 15-16 urte bitartekoentzako zerbitzua eskaini izan dute, baina hortik aurrera ez da jarraipenik egon, eta horrexegatik hain zuzen ere, zegoen hutsune hori bete nahian, sortu da egitasmo hau.

Apirilaren bukaeratik ekainera bitartean lehenengo hastapenak eman ziren, baina urtariletik aurrera berriz ere ekingo zaio programa honi.

Zer da proiektu honekin lortu nahi dena?

Alde batetik antzerki eskola amateur finko bat sortu nahi da, eta bestetik, txorierritarrei, bereziki euskara erabiltzeko beste aukera bat gehiago eskaini nahi zaie. Badakugu eskualdean arrakasta handia duen Berbalagun programa. Baina

aisialdian erabilera gune berriak sortu nahi ditugu, euskarak arnasgune berriak izan ditzan.

Nork eman dezake izena antzerki eskolan?

16 urtetik gorako edozein pertsona eman dezake izena. Ez da aurretik inolako esperientziarik izan behar. Euskaraz ondo pasatzea eta lagun berriak egitea gustuko duen edonork har dezake parte.

Noizero izango dira klaseak?

Astean behin bi orduz izango dira eta izena eman dutenen disponibilitatea kontuan hartuta zehaztuko dira eguna eta ordua.

Zer da klaseetan landuko dena?

Arte eszenikoen teknika ezberdinak emango dira ezagutzera, gorputz eta ahots espresioa landuko da, eta talde lana eta irudimena bultzatuko dira; besteak beste, keinua, interpretazioa, presentzia

eszenikoa, erlaxazioa eta gorputzarekiko kontzientzia, erritmoa, testuen lanketa eta sormenerako bide desberdinak erakutsiko dira.

Gainera lan honen guztiaren ondorioz, antzezlanak prestatuko dira taldean, eta txorierritarrei aurkezteko aukera zabalago da, bai euskara elkarrekin, bai Udalek eta bai Mankomunitateak antolatzen dituzten egitarauen barruan.

Beraz, euskaraz gozatzeko, antzerkiko trikimailuak ezagutzeko eta zure lagunaren esparrua handitzeko gogoia badaukazu, ez galdu aukera eta eman izena Txorierriko antzerki eskolan:

Telefona: 94 4540350

E-maila: euskera@txorierrin.eu

Epea: urtarrilaren 30era arte



2016ko PROPOSAMENAK

ERRETZEARI UTZI? BA HORIXE!

ERRETZEARI UZTEKO IKASTAROA

OSAKIDETZAko sendagile eta erizain eta **PSIKOLOGO** adituen eskutik.

TOKIA: DERIOKO KULTUR BIRIKA

DATAK: Asteazkenetan, 19:00etatik 20:00etara, urtarrilaren 27tik martxoaren 16ra arte.

IZEN-EMATEAK: Urtarrilaren 11tik 25era. Txorierriko Mankomunitatean (94-454.03.50 / ekt@txorierrin.eu)

Aurten bi talde egongo dira, bat **EUSKARAZ** eta bestea **ERDERAZ**








TXORIERRIKO MANKOMUNITATEA

Txorierriko gurasoentzako ikastaroak

Guraso eskola	Gaia	Data	Orduategia	Tokia
Sondika	Autoestima	Martxoak 1	17:00-18:30	Sondikako eskola (Biblioteka)
	Inteligencia emocional	Martxoak 8		
	Ocio saludable	Martxoak 15		
Derio	Autoestima	Apirilak 6	19:00-20:30	Kultur Birika Derio
	Premios y castigos	Apirilak 13		
	Ayuda en el estudio	Apirilak 20		
Zamudio	Ayuda en el estudio	Otsailak 11	19:00-20:30	Zamudioko eskola (Areto nagusia)
	Ocio saludable	Otsailak 18		
	Corresponsabilidad familiar	Otsailak 25		
Larrabetzu	Adimen emozionala (3 saioetara joan behar da. Denak euskaraz)	Urtarrilak 18	18:00-20:00	Anguleri
		Otsailak 15		
		Martxoak 14		
Lezama	Consumo de drogas	Maiatzak 4	18:00-19:30	Uribarri Topalekua
	Hezkuntza moduak (euskaraz)	Maiatzak 11		
	Ocio saludable	Maiatzak 18		

IZENA EMATEKO:

- Mankomunitatea: Txorierr Etorbidea 9, behea 94-454.03.50 (Janire).

- Guraso eskoletan izena emateko fitxa entregatuz

- **NOTA:** Sondikan eta Lezaman haurtzaindegi zerbitzua egongo da

Kolore horiz agertzen diren hitzaldiak erdaraz emango dira, guraso elkarteek horrela eskatu dutelako.



t: Itxaso Marina

Ikasturtea otsailetik abenduaren 1era artekoa da Nikaraguan. Horregatik daude herritar gehienak oporretan Gabon garaian. Meyling Benavidez Zelaya derioztarra Quilalí herrikoa da (Nueva Segovia), iparraldekoa. Kontatu digunez, Gabonak abendu osoan ospatzen dira bertan. "Sortzez Garbia Nikaraguaren zaindaria da eta haren egunaren bezperan, abenduaren 7an, aldareak ipintzen dira etxeen aurrean. Lagun-kuadrillak aldarek joaten dira abesten, eta etxekoek gozokiak, jatekoa... ematen dizkiete. Ohitura horri *gritería* esaten diogu, eta oso polita da, premia handiak eduki arren, jendeak daukan guztia konpartitzen duelako lagunekin eta ezezagunekin". Elizan egiten diren ohiko errezoez gainera, herritarrek *purísima* egiteko ohitura ere badute. "*Gritería* antzekoa da, baina gonbidatuei bakarrik zuzenduta".

Abenduaren 24a mugimendu handiko eguna da Quilalíko etxeetan. Herritarrek goizaldeko 4retan altxatzen dira *nacamatál*-a prestatzeko, indigenen ohi-

Munduko Gabonak

Gabonen atarian gaudenez, jakin nahi izan dugu zelan bizitzen dituzten egun hauek munduko beste herri batzuetan, eta horretarako bost "txorieritarturengana" jo dugu. Badakigu herrialde eta kultura askoko lagunak ditugula geure artean, baina hasteko, Mey, Mor, Joannés, Zoila eta Marcelaren ohituretara hurbildu gara. Espero dugu aurrerago gainerakoen ohituretara ere hurbildu ahal izatea.

ko jatekoa. Egun osoa eskatzen duen lana da eta familia osoak hartzen du parte. "Bananondo arren hostoak apur bat txigortu eta haien gainean, artoarekin, espeziekin eta txerri-gantzarekin egindako ore bat ipintzen da. Eta orearen gainean, txerrikia espeziekin; eta gainean, arroz egosia, patatak, tomatea... Ondo biltzen da dena eta bananondoren lianekin lotzen da. Lapiko handi batean egosten dira". Etxean zazpi badira ere, amak 50-70

prestatu ohi ditu. "Izan ere, auzokideei, senideei... eramaten dizkiegu eta hurrengo egunotan jateko ere gordetzen ditugu". Era berean, ohikoa da Gabon Gauean oilaskoa edo solomo betea patatekin eta entsaladarekin jatea. Edateko, *fresco* hartzen dute, fruta tropikalekin egindako zuku natural bat.

"Janaria prestatzen amaitu badugu, mezatara joaten gara arrastiko 8etan. Afaria gaueko 12etan hartzen dugu eta ondoren, ohera". Senideak bata bestearen ondoan bizi dira, eta ez dute elkarrekin afaltzeko ohiturarik. "Askoz jota, haien etxera joaten gara agurtzera".

Arropa berria

Santa Claus ez da Quilalíko tximinietatik jaisten. "Gurasoek oso esfortzu handia egin behar izaten dute oinarritzko beharrianak betetzeko, eta horregatik ez da bultzatzen ohitura hori umeen artean. Baina arropa erosten digute, afarian estreina dezagun". Hango eta hemengo apainketa oso antzekoa da. "Pinuak mendian hartzen genituen lehen; orain, plastikozko zuhaitza ipintzen da. Bestalde, jaiotza etxeko gauzeekin eta jostailuekin egiten dugu". Hurrengo eguna egun arrunta da iparraldeko nikaraguarrentzat. "Berandu altxatzen gara eta ez dugu ezer



Mey ingeles irakaslea da eta duela sei urte etorri zen Euskal Herrira

inprimategia + kartelgintza + erakustegi mugikorak + scanner & txosten kudeaketa + erreprografia

Zamudion

Elkarte Teknologikoa, 105.
T 94 431 71 36
E zam@cianoplan.es

cianoplan
GLOBAL PRINTERS

BARAKALDO . BILBAO . GETXO . ZAMUDIO

902 103 763
www.cianoplan.es

Nikaraguan, familia osoak laguntzen du "nacamatal"-a prestatzen Gabon gauerako

berezirik egiten. Bazkaltzeko, afarian geratu dena hartzen dugu”.

Ia konturatu barik, urteko azken gauera ailegatu gara. “Hamabiak bete arte itxaron eta auzokideen etxera joaten gara, elkarri agurtzera. Ostean, afaldu egiten dugu, bakoitzak bere etxean, eta Gabon Gauean bezala, oliaskoa edo solo-moa jaten dira, eta *nacamatal*-en bat balego, hori ere bai”. Suziriak eta petardoak ere botatzen dira eta, gurean bezala, gazteak parrandan irteten dira afaldu ondoren; gainerakoak, ohera. “Urteberri-egunean ere ez dugu ezer berezirik egiten, baina aitari gustatzen zaio gure herriaren erretrauak, esaerak... kontatzea”.

Mey ingeles irakaslea da eta duela sei urte etorri zen Euskal Herrira, bere lan eta bizi aukerak hobetzera. Handik hona koinatuaren familiarekin ospatzen ditu Gabonak, eta hemengo ohituretara ederto moldatu den arren, gauza baten falta handia sentitzen du: “Etxeko sukaldeko giroa. Jendea”.

Tanboreak

Mor Gninge Wade senegaldarra Bilbon bizi den arren, Larrabetzun egiten du bizitza, eta hain zuzen ere urian harrapatu dugu. Nayobe herrikoa da eta Gabonak bertan eman zituen azken aldia orain dela hiru urte izan zen.

Senegaleko biztanleen % 95 bezala, Mor musulmana da. Nolanahi ere, eta erlijioa alde batera utzita, abenduaren 24ko gaua familian egoteko unea da. “Aitaren

“Deeguen” izenekoa Senagaleko ohiko abestia da, urrun daudenei edo jadanik ez daudenei eskainia



Mor senegaldarra Bilbon bizi da, baina Larrabetzun egiten du bizitza

Zure
ideiak
mugarik
gabe

Publizitatea eta
eduki kreatiboak

www.atomikastudio.com 94 656 99 05

etxean batzen gara, 15 lagun inguru: anai-arrebak, umeak... Afaltzeko, okela jaten dugu, oilasko errea, patatekin eta entsaladarekin. Eta edateko, freskagarriak". Gaua edozein familiak bezala ematen dute eta orduak ia konturatu barik pasatzen zaizkie. "Dantzan egiten dugu eta ohiko abestiak ere kantatzen ditugu. Esate baterako, *Deeguen* izeneko abestia. Urrun daudenei edo jadanik ez daudenei buruzko abestia da eta haien falta handia sentitzen dugula adierazten da bertan".

Baina arrastian, bakoitza bere etxera familia artean afaltzeko joan baino lehen, Nayobeko biztanleak herriko plazan batzen dira eta Senegaleko dantza tradizionalak dantzatzen dituzte. "*Mabalkh*-a gure dantza da eta tanborrez jotzen da. Jai handia egiten dugu eta bertan umeek, gazteek zein nagusiek hartzen dute parte. Ikusgarria da benetan".

Esan bezala, horren ostean, bakoitza senideekin batzen da bere etxean, eta dotore jantzen dira mahaira esertzeko.

Senegaleko arropa tradizionala jantzen dute. Egongelan eta beste gela batzuetan argitxoak ipintzen dituzte haiek dekoratzeko. "Umeei opariak emateko ohitura dugu, baina guk ez daukagu Olentzero edo Santa Claus moduko pertsonaiarik. Opariak guk geuk ematen dizkiegu". Abenduaren 24ko gauak luze jo ohi du Morren familiaren etxean, eta horregatik hurrengo egunean "lasai-lasai ibiltzen gara, ezer berezirik egin gabe".

Kontatu digunez, Gabon zahar eguna ere antzeko modu batean ospatzen dute. "Menua antzekoa da eta afaldu ostean, batzuk, gazteenak, diskotekara joaten dira. Etxean gelditzen garenok ere jaiatxo egiten dugu. Abesten dugu, dantzatu...". Eta horrela gorputzak nahi duen arte. "Hori bai, hurrengo egunean ez dago inor kalean. Guztiok etxe barruan, lo egiten, lasai...".

Mor orain dela 15 urte ailegatu zen Euskal Herrira. Kale-saltzailea da; hala ere, aukera dagoenean, beste lan batzuk egi-

Gabon gaua gau erromantikoa da Japoniako gazteentzat eta bikote asko irteten dira afaltzera

ten ditu eta, besteak beste, eraikuntzan eta mahats-bilketan ibili da. Abenduaren 24a eta 31 anaiekin eta lehengusuekin eman ohi ditu Bilbon. Ohiturak Senegalen baleude bezala mantentzen saiatzen dira, baina etxetik urrun egonda batez ere pertsonak eta haien falta eramaten dira bihotzean. Izan ere, Morrek emaztea, seme bi eta alaba bat ditu Senegalen. Datozen egunotan ezin izango da haiekin egon, baina kontatu digu otsailean edo martxoan hara joateko asmoa duela. Orduan ospatuko dute.

KFCeko oilaskoa

Joannés eta Yasuko Berque zamudiozarrak Japoniakoak dira, Sapporo herrian jaioa, lehena; eta Kanazawa herrian, bigarrena. Zamudiora 2012. urtean etorri ziren, Joannésekin Zientzia eta Teknologia Parkean lana topatu zuelako. Ikerlaria da eta energia berriztagarrien arloan egiten du lan.

Japonian kristau gutxi badaude ere, Joannésekin esan digunaren arabera, Gabonak modu agerian ospatzen dira, eta kaleetan, etxeetan zein enpresetan apaingarriak eta zuhaitzak ipintzen dira. "Familiak, usadioz, Gabon zahar gauean batzen dira, esanahi espiritual edo erlijioso handiagoa duelako. Baina egia da Gabon gauean ere senideekin batzeko ohitura hartu dela". Azken hamarkada biotan batez ere. "Nolanahi ere, gau erromantikoa da gazteentzat eta bikote asko ateratzen dira afaltzera. Era berean, ohikoa da musika klasiko europarraren kontzerturen bat entzutera joatea".

Gabon gauean, Kentucky Fried Chicken (KFC) jatetxearen oilaskoa afaltzeko ohitura zabaldu da japoniarren artean. "Ohitura baino gehiago, nire ustez, KFCeko publizistek lortu dute herritarrek sinestea oilaskoa jatea Gabonetako ohituretariko bat dela. Gainera, eta nire susmoa baino ez den arren, esango nuke

Joannés eta Yasuko Berque, semearekin





Dantzariak "El pase del Niño" prozesioan, Machala Ekuadorreko herrian. Zoila, eskuman, hangoa da



askok Sanders Koronela, KFCeko irudia dena, eta Santa Claus nahasten dituztela".

Eta Santa Claus da, hain zuzen ere, Japoniako umeei opariak eramaten dizkiena. "Ni ez naiz oparien aldekoa; Yasuko, berriz, bai. Urte biko semea daukagu, Aki Jacques, eta Olentzerorengan edo Santa Clausengan sinets dezan nahi du. Ez dakit, zergatik ez? Yasukok interes handia du Olentzerorengan". Urte asko pasatu dira Joannés Japonia Gabonetan bisitatu zuela; Yasuko orain dela hiru urte joan zen. "Zeren falta sentitzen dudan? KFCeko oilaskoarena ziur ezetz!".

Hondartzara

Machala Ekuadorreko herri bat da. Bertan familia xumeak bizi dira eta guz-

tiek ez dute etxean jaiotza ipintzeko aukerarik. Horregatik, abenduaren 15etik aurrera, auzoko umeak jaiotza duten etxeetan biltzen dira, eta errezatu eta Gabon-kantak abesten dituzte. Abendualdia ere egiten da elizetan. Zoila Hurtado Aponte lezamarrak oso ondo ezagutzen ditu ohitura horiek, bera Machalako delako.

Baina Zoilari gehien gustatzen zaiona auzoetan egiten den Gabonetako jaia da. "Auzoko ume guztiak batzen dira bertan, eta musika dago, jolasak, Gabonetako printzesa aukeratzen da, opariak banatzen dira... Auzotar guztiak hartzen dute parte antolakuntzan, eta dendariak ere dirua ipintzen dute opariak-eta erosteko. Horrela, ume guztiak opariren bat eduki-

ko dutela ziurtatzen da, familia guztiek ez dituztelako baliabide berdinak".

Abenduaren 24an, iluntzean, "El pase del Niño" egiten da. "Prozesio bat da eta, bidean, geldialdia egiten da zenbait etxetan, angelusa errezatzeko. Jendetza handia batzen da prozesioan. Ohiko dantzak egiten dira, abestu, bertsoak bota...". Bestalde, oilar meza bi egiten dira: bata 21:00etan, eta bestea, 24:00etan.

"Familia osoa biltzen gara afaltzeko: etxeakoak zein aita-amamak, izeba-osabak, lehengusu-lehengusinak eta lagunak ere bai. Oilasko edo indioilar betea jaten dugu eta beste plater batzuk ere ipintzen ditugu: *patacón* (banana berdea, zatitan, talotua eta frijitua), gazta, arroz zuria, hango hestebeteak...". Opariak





**Ospatu gurekin
eta DJ-ekin**

**Gabon Gaua
Gabon Zaharra
Erregeen gaua**

Errementeri, 8
48150 SONDIKA
944 532 592
652 732 584

Txirbo kalea, 9
48170 ZAMUDIO
94 452 26 75



Askotariko pintxoak - Plater konbinatuak
8:00etatik irekia
WIFI gunea



Eguneko menua, asteburuko menu berezia, karta,
enpresen bazkariak, jaunartzeak, familien bazkariak

Arteaga, 80
Zamudio 48170 (Bizkaia)
Tfnoa: 94 452 14 19
Faxa: 94 452 26 29

*Txorimaloek urtean
zehir gertatutako gauza
txarrak islatzen dituzte
Ekuadorren; Gabon
zaharreen erretzen dira*

Santa Clausek ipintzen ditu ohearen alboan edo burkoan. "Abenduaren 25ean, eta batzuek urtarilaren 1ean ere bai, autobusak alokatzen dira eta hondartzara edo ibaira joaten gara, familia osoarekin eguna bertan ematera".

Txorimaloak egiten dituzte urte amaierarako. "Erakusketak antolatzen dira eta kalejiran ere ateratzen da. Txorimaloek urtean zehar gertatu diren gauza txarrak adierazten dituzte eta gaueko 12etan erretzen dira. Petardoak eta suak ere botatzen dira. Ondoren, etxez etxe joaten gara auzokideei-eta urte berri on opatuz, eta gero, etxean biltzen gara afaltzeko". Txerri-izter errea hartzen dute eta ohiko platerak ere prestatzen dituzte, hala nola *llapingachos* (patatazko edo jukazko tortillak, hainbat jakirekin zerbitzatzen direnak), *hallacas* eta *humitas* (Nikaraguako *nacatamal*-en antzekoak), eta *chicha*, anana eta pattarrekin egindako edari bat. "Etxe batzuetan festak antolatzen dira eta hara nahi duena joan daiteke. Festek egun batzuk iraun dezakete". Urtarrilaren 6a ez da jai eguna Ekuadorren, baina "La bajada del Niño" egiten da eta umeen artean gozokiak eta txokolata banatzen da.

Zoila orain dela 15 urte ailegatu zen Ekuadorretik, "apur bat denetarik egitera: lan egin, ikasi...". Urteak daramatza ostalaritzan lanean. 2013ko Gabonak Machalan pasatu zituen eta esan digu herria aldatuta topatu zuela. "Hala ere, ederra zegoen, kaleak argiz beteta eta, gainera, han Ekuadorreko Gabonetako zuhaitzik handiena ipintzen da". Berak ere ahalegina



Marcela aleman irakaslea da

egiten du etxeko ohiturak mantentzeko eta horiei seme-alabei helarazteko.

Kapustnica

Lanak ekarri zuen Marcela Mihalíková Richnavská Sondikara duela 15 urte. Eslovakiakoa da, Kosice hirikoa, eta kontatu digunez, hango eta hemengo ohiturak oso antzekoak dira. "Senideekin batzen gara Gabon gauean afaltzeko, baina Eslovakian jatekoa ez da berton bezain gozoa... Hasteko, *kapustnica* hartzen da, aza hartzituaz egindako zopa bat. Eta gero amuarraina; postrerako, jengibreko pastelak". Etxeko baten bat Santa Claus mozturatu eta opariak ematen dizkie txikienei. Bestalde, han ere oilar-mezatzen da, "baina gero eta gutxiago". Gabonak orokorrean etxe barruan bizitzen dituztela azaldu digu. "Izan ere, hotz ikaragarria egiten du eta halakoa da ohitura. Dena dela, egia da eslovakiarrak kalera lehen baino gehiago ateratzen direla; gehienbat hiriburuan, Bratislavan".

Gabon gaua eta Gabon eguna familian egoteko uneak badira, Urte zaharra lagunekin pasatzeko da. "Kalera irteten gara urte berria ospatzera. Askok bidaia egiten dituzte eta eskiatzera joateko ohi-

tura ere badago. Hurrengo egunean, etxean gelditzen gara, Vienako kontzertua eta eski-jauziak ikusten".

Urtarrilaren 6a egun arrunta da Eslovakian; hala ere, haiek San Nikolas ospatzen dute abenduaren 8an. "Umeek galtzerdiak eskegitzen dituzte eta gozokiak uzten zaizkie barruan. Baina nik seme-alaba bi ditut eta, noski, dena ospatu behar dute: Olentzero, Santa Claus, Erregeak... (kar, kar).

Eslovakiara urterik behin edo bitan joaten den arren, ez dauka Gabonak bertan pasatzeko ohiturarik. Are gehiago, aitortu digu ez duela ezeren falta sentitzen. "Zer dela-eta, ba? Bertan hotz ikaragarria dago eta janaria, gainera, ez da hain gozoa (kar, kar)". Argi dago aleman irakasle honek Euskal Herriko klima eta dieta nahiago dituela.

*Urte berrian Vienako
kontzertua eta
eski-jauziak ikusten
dira Eslovakian*

elekma
URRATZAREN BAT DUTEN ETXETRESNA ELEKTRIKO BERRIAK
TELEBISAK ETA ETXETRESNA ELEKTRIKO TXARRAK

Lehenengo markak • Hesiarik onenak
BOSCH, SIEMENS, BALAY

Txarriaren erretabidea: 25-3 N • 48180 Iruia
T: 944 539 232
www.elekma.es

BIZKARGI
TABERNA ETA JANARIA

Urkiola, 6 DERIO 944541655

40190 LEZAMA Bizkaia Gaithegitea oinarrizko 36

S.T.L. LEGU
ERATZAILERTE ETA BESO-LERNAK

F: 94 455 64 17 T: 94 455 61 98


**LIBRERIA
SONDIKA
LIBURUDENDA**

ARTE EDERRAK - ESKULANAK, E.A.

JESUS MANUEL LANDA ANTOLIN

Fotokopiak, koadernaketa, plastifikatuak,
prentsa, aldizkariak, liburuak,
papezgintza eta eskulanak

Mikel Zarate, 2 - Tel. / Faxa: 94 453 16 77
48150 SONDIKA (Bizkaia)

NATURA - EUSKARA - KIROLA - PERTSONA



ARTEKALE 17
OTXANDIO - BIZKAIA
TEL. 945 45 03 01

 info@koikiliaterpetxea.eus
 @KoikAterpetxea
 www.facebook.com/koikiliaterpetxea

ITZARRI TALDEA




**koikili
aterpetxea**

ESPERIENTZIA AHAZTEZINA
KOIKILI ATERPETXEAN
TURISMO AKTIBO BERRITZAILEA



www.koikiliaterpetxea.eus


OAKLAND
ENGLISH

IKASTARO TRINKOAK, UDAN
MAILA GUZTIAK

946522857
LEHENDAKARI
LEIZAOLA PLAZA, 2
48170 ZAMUDIO



solarium arin horizontala
dubxen zerbitzua
etengabeko ordutegia
hitzordua aurretik eskatuta

tel.: 94 454 35 80

Goiko kalea, 2 - 48160 Derio


Enaitz
TUBERIA

Ogitaratekoak
Anoak
Plater konbinatuak

94 455 42 15
Garaioitza, 74
48196 Lezama

Gabonetan be
euskeraz bizi

ZORIONAK


LAGATZU
ZAMUDIOKO
EUSKERA
AIKARTEA
www.lagatzu.org

**zamudion
euskeraz?
hoba ez!**


**TOLDOS
TXORIERRI**
TOLDOS B. GOYOAGA

Lona industrialak
Sareak
Eguzki-ohialak
Alokatzeko lonak



Torrelarragoiti ind, P2
48170 Zamudio
Tel.: 94 452 12 58
Faxa: 94 452 07 44
Gasolindegia ondoan

Hori Bai (Larrabetzu)

Abenduak 24, eguena

–18:30: Olentzero, serran.

Abenduak 25, barikua

–19:00: Bertso saioa: Maialen Lujanbio, Igor Elortza, Julio Soto eta Xabi Paya.

–Ostean, Dj Bull.

Abenduak 27, domeka

–18:00: Kontzertuak: Keshala eta Anari.

Abenduak 28, astelehena

–Jose Migel Etxeandiarri ondo etorria.

Abenduak 29, martitzena

–Durangora irteera, Kukubel taldearekin.

–20:00: *Desentxufatuak* antzezlan.



Abenduak 31, eguena

–Arratsaldean, urte amaierako jaia, Kukubel taldearekin.

–Gauean, kotiloia. Gaia: Ipuinak.

Urtarrilak 3, domeka

–11:00: Auzoz auzo.

–19:00: Antzezlan, Gilkitxaro taldearen eskutik.

Urtarrilak 6, eguaztena

–18:00: *Kiriku* filma.

–Ostean, txokolatada.

Urtarrilak 8, barikua

–22:30: Kontzertuak: The Fridays Crew eta Arkada Social.

Urtarrilak 9, zapatua

–Euskal preso eta iheslarien eskubideen aldeko manifestaziora, Bilbora.



Derio

Abenduak 24, eguena

–10:00: Ekintzak eta kirol jokoak familian, kiroldegian. Udalak eta AMPA Derio Txikik antolatua.

–11:00: Xakearen Tokiko Opena, kiroldegian. Xake taldeak antolatua.

–17:00: Olentzero eta Mari Domingirekin kalejiran, Errekalde parketik. Udalak, Tximintx euskara elkarteak, Ipar-Alde abesbatzak eta Jantzi Jarauntsi Troupek antolatua.

Abenduak 26, zapatua

–12:00: Erromeria Lainomendi eta Aiko dantza taldeekin, Kultur Birikan.

–20:00: Txorierriko Gabon-kanten jaialdia, San Isidro elizan. Abesbatzak: Ipar-Alde (Derio), Iraunkor (Plentzia) eta Arrigunaga Kamara Korala (Getxo).

Abenduak 27, domeka

–12:00 eta 13:00: *Pequeña Max* urte bate-tik hiru urtera bitarteko umeentzako antzerkia, Kultur Birikan. Arena en los bolsillos taldearen eskutik.

Abenduak 28, astelehena

–18:00: Nagusien jaia, Kultur Birikan. Udalak eta Nagusien Etxeak antolatua.

Abenduak 29, martitzena

–20:00: Gabonetako gala, Kultur Birikan. Udalak eta Danerik Paraje elkarteak antolatua.

Abenduak 31, eguena

–10:00: Ekintzak eta kirol jokoak familian, kiroldegian. Udalak eta AMPA Derio Txikik antolatua.

–11:00: Aldibereko xakea, kiroldegian. Xake taldeak antolatua.

Urtarrilak 2, zapatua

–11:00-14:00 eta 17:00-19:00: Gabonetako haur-parkea, kiroldegian. Puzgarriak, tailerrak, diskofesta...

Urtarrilak 5, martitzena

–18:00: Erregeen kabalgata, elizatik Udaletxera.

Urtarrilak 7-23

–Sahara bidaltzeko janaria banatzeko kanpaina, supermerkatuetan.

Urtarrilak 9, zapatua

–19:00: *La tetera* antzezlan, Sutondoan elkartearen eskutik.

Urtarrilak 15 arte

–*Greetings from Derio* erakusketa, Kultur Birikan. DATEk antolatuta.

Larrabetzu

Abenduak 31, eguena

–12:00: "Uriari buelta" Sahararen aldeko lasterketa. Izena ematea: azukre kilo bi edo konpresa pakete bi.

Urtarrilak 4, astelehena

–16:00-21:00: Puzgarriak, musika... frontoian.

Urtarrilak 5, martitzena

–18:30: Txokolatada eta dantzaldia, Gure Etxean.



Zamudio

Abenduak 24, eguna

–Olentzero Eguna: Herritik abestea, Zamudioko Kamara Korallarekin, kalejira...
–10:00: Gabon Eguneako plater-tiroko saioa, Teknologia Parkeko tiro zelaian. Zamudio Ehiza eta Arrantza elkarteak antolatua.

Abenduak 26, zapatua

–16:00-21:00: Gabonetako haur-parkea, kiroldegian.

Abenduak 27, domeka

–Gabonetako haur-parkea, kiroldegian.

Abenduak 28, astelehena

–Gabonetako haur-parkea, kiroldegian.
–Inuzentean Eguna. Filma, Gazte estazioan.

Abenduak 29, martitzena

–Gabonetako haur-parkea, kiroldegian.
–Ikastaroetan izena emateko azken eguna.
–Tortilla Eguna, Gazte Estazioan.

Abenduak 30, eguaztena

–Gabonetako haur-parkea, kiroldegian.
–19:00: Gabon Zaharreko jaia, Gazte Estazioan.

Abenduak 31, eguna

–Kolitzara irteera, Arroeta mendi taldeak antolatuta.
–10:00: Gabon Zaharreko plater-tiroko saioa, Teknologia Parkeko tiro zelaian. Zamudio Ehiza eta Arrantza elkarteak antolatuta.

–01:00: Urte amaierako kotiloia, Adintsuen Etxean. Musika, Irusta taldea...

–Gabon Zaharreko autobusa. Izena ematea: abenduaren 29a baino lehenago, Gazte Estazioan.

Urtarrilak 2, zapatua

–Postreak egiteko tailerra, Gazte Estazioan.

Urtarrilak 4, astelehena

–Filma, Gazte Estazioan.

Urtarrilak 5, martitzena

–11:00: Gabonetako haur-parkera irteera (BEC), Gazte Estazioak antolatuta.



Lezama

Abenduak 24, eguna

–17:00: Olentzero, plazan. Ekidazu abesbatzaren emanaldia, umeen dantzak, kalejira, opariak banatzea... Udalak, Zorritzetan euskara elkarteak, Kurutze dantza taldeak eta Ekidazu abesbatzak antolatuta.

Abenduak 27, domeka

–09:00: Bizkargi "Turroi Eguna". Uri-barri Topalekuan.

Abenduak 28, astelehena

–11:00-13:00: Animazioa, Ludotekan.

Abenduak 29, martitzena

–10:00-13:30: Tximipark-era irteera.

Abenduak 30 eta 31

–11:00-13:00: Tailer bereziak, Ludotekan.

Urtarrilak 3 eta 4

–Gabonetako haur-parkea, frontoian. Ludoteka, tailerrak, puzgariak...

Urtarrilaren 5era arte

–Gabonetako txokoa, eskolan.



Hemen prestakuntzak
lana dakar berarekin

Urtzagia Ibaia Kalea, 1 | Tel.: 94 403 40 60 | info@txorierri.net
48160 - DEIÑO | Fax: 94 403 40 61 | www.txorierri.net

Eusko Jaurlaritzak diruz-lagundutako ikastetxea

ZIENTZIA ETA TEKNOLOGIAKO BATXILERGOAK

LANBIDE HEZIKETAKO ZIKLOAK

FABRIKAZIO MEKANIKOA

- * Mekanizazio teknikaria
- * Erdi mailako zikloa (2 ordu)
- * Fabrikazio Mekanikoko Diseinuko goi-mailako teknikaria
- * Goi-mailako zikloa (2 ordu)
- * Produzioaren Programazioko goi-mailako teknikaria
- * Goi-mailako zikloa (2 ordu)

SEGURTASUNA ETA INGURUMENA

- * Ingurumen-Heziketa eta Kontrolko goi-mailako teknikaria
- * Goi-mailako zikloa (2 ordu)

ELEKTRIZITATEA ETA ELEKTRONIKA

- * Automatizazio eta Robotika Industrialeko goi-mailako teknikaria
- * Goi-mailako zikloa (2 ordu)
- * Telekomunikazio- eta Informatika-Sistemetako goi-mailako teknikaria
- * Goi-mailako zikloa (2 ordu)

MERKATARITZA ETA MARKETINA

- * Salmenten kudeaketako eta Merkataritza Arloetako goi-mailako teknikaria
- * Goi-mailako zikloa (2 ordu)

Abenduak 24, eguna

–17:00: Olentzero eta Belen biziduna, Udaletxean. Bertoko produktuez betetako otzara zozketatzea. Udalak, Txuma Olagüe abesbatzak, Gorantzaileak dantzataldeak, Ipar Elaak txistu taldeak eta AMPA Gorondaganek antolatua.

Abenduak 28, astelehena

–18:00: Erromeria, Goiri plazan (euria balego, Goronda Beko kiroldegian). Altzora euskara elkarlearen eta Aiko taldearen eskutik.

Abenduak 29, martitzena

–12:00-14:00 eta 17:00-20:30: Txiki Eguna, Goronda Beko kiroldegian.

Sondika

Abenduak 30, eguaztena

–12:00-14:00 eta 17:00-20:30: Txiki Eguna, Goronda Beko kiroldegian. Elikagaiak jasoko dira, Elikagaien Bankuari emateko.

Urtarrilak 5, martitzena

–18:00: Erregeen kabalgata, terminal zaharretik.

Urtarrilaren 5era arte

–Egitarau berezia, Gaztetxean: Tailerrak, bakarrizketak, patinatzea...

Urtarrilaren 8ra arte

–11:00-13:00: Egitarau berezia, Ludoteka In: Ipuin kontalaria, tailerrak, txotxongiloak...

–11:00-14:00: Egitarau berezia, Ludoteka II: Txapelketak, tailerrak, kaleko jolasak...

Urtarrilak 17, domeka

–09:00-13:00: Urkuluko urtegira irteera. Izena ematea: abenduaren 13ra arte, liburutegian.

Urtarrilaren 29ra arte

–Gabon-txartelak ikusgai, erakusketaretoan.



Loiu

Abenduak 24, eguna

–10:30-13:30: Ludoteka, Zabaloetxen.

–12:00: Olentzero, Elotxelerrin. Bolinaga kaletik Elotxelerriko plazara. Opariak eta egutegiak banatzea, zantantzarrak, gaztainak...

–17:00: Olentzero, Zabaloetxen. Klaratarretatik frontoira. Opariak eta egutegiak banatzea, zantantzarrak, gaztainak...

Abenduak 27, domeka

–12:45: Txorierriko Gabon-kanten jaialdia, San Pedro elizan. Abesbatzak: Gaztelumendi (Larrabetzu), Ekidazu (Lezama), Txuma Olagüe talde korala eta Txuma



Olagüe abesbatza (Sondika), Zamudioko Kamara Korala eta Ipar-Alde (Derio).

Abenduak 28, astelehena

–10:30-13:30: Ludoteka, Zabaloetxen.

–18:00: Eriz magoa, Elotxelerriko zentro zibikoan.

Abenduak 29, martitzena

–10:30-13:30: Ludoteka, Zabaloetxen.

–18:00: Kiki pailazoa, Zabaloetxeko Ludotekan.

Abenduak 30, eguaztena

–10:15, Zabaloetxen; 10:30, Elotxelerrin: Gabonetako haur-parkera irteera (BEC).

Abenduak 31, eguna

–06:30: Gorbeia mendira irteera, Herriko plazan. Izena ematea: 688 89 89 30 (Idoia) eta 607 75 09 85 (Karlos).

Urtarrilak 4, astelehena

–11:30-13:30: Gabonetako haur-parkera, Zabaloetxeko frontoian.

Urtarrilak 5, martitzena

–10:30-13:30: Ludoteka, Zabaloetxen.



HERRIKO DENDAK HERRIKO JENDEARENAK

Iratxeren
altzari-denda

Josebaren
gimnasioa

Aitorren
okindegia

Elsaren
fruta-denda

Lauraren
zapata-denda



Herriko dendak herriko jendearenak dira; jende **langilea**,
lana sortu eta gure kaleak **bizirik** mantentzen dituenak.

HERRIKO DENDEK ZURE LAGUNTZA BEHAR DUTE, EZ HUTS EGIN

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

EKONOMIAREN GARAPEN ETA
LEHIAKORTASUN SAILA

DEPARTAMENTO DE DESARROLLO
ECONÓMICO Y COMPETITIVIDAD



Tren geltokia ikuskizuna

Euskarak 365 egun

a: Aner Mentxaka, Idoia Andrés eta Eneritz Larrañaga

Ekitaldi sorta zabala eduki dugu gure herrietan Euskararen Egunaren haritik: antzerkia, kantaldiak, umeentzako jolasak, bertsolariak, magia... Hitzordu nagusia Zamudion izan dugu, baina gainontzeko herrietan ere ekintzak antolatu dira euskara elkarleen eskutik. Euskararen Eguna abenduaren 3an ospatzen dugu, baina gure hezkuntza ez da egun bateko kontua, eta horregatik urterik urte eskatzen da konpromisoak hartzeko, urteko gainontzeko egunetan ere euskara erabiltzeko eta euskaraz bizitzeko. Derion, esate baterako, herriko 21 eragilek hartu zituzten euskararen inguruko konpromisoak eta zuhaitz batetik eskegi zituzten. Horren ostean, kandelaz osatutako "Euskarak 365 egun Derion" esaldia piztu zuten.



Derion ere ospatu zuten Euskararen Eguna



Asier Kidam magoa



ASESORÍA
Luis Fernando Aguirre, s.l.

Mateo Bidaurreazaga, 1
Tfno.: 94 453 33 28 - Fax 94 471 06 28
48150 SONDIKA (Bizkaia)

Altzari
EBANISTERIA - CARPINTERIA, S.L.

Zureko lanetan espezialistak

Alain Pomposo Zarate
946 740 141
663 209 209

www.altzari.com
altzari@altzari.com

Luisene, 2 - Belako Elkarteagla, mod. 203-2 - 48100 MUNGIA

TURREGOTTI
JATETXEA

Laurietza etorbidea, 27
48180 Lolu-Bizkaia
T-Faxa: 94 453 24 40
restauranteturregotti.com

Garmendia
ardoak

Pinoia pol., P-3B
ZAMUDIO
Tel./Faxa: 94 452 00 49

HERBAGITEGIA
URDAGITEGIA
IMAZ

MUNGIALDE ETORBIDEA,2
TLFNOA: 94 454 10 75

DERIO
Eskerrik esko
etortzeagatik



Txotxongilo ikuskizuna, Larrabetzun



Hor konpon Marianton antzezlan



OPTICA MODERNA

Erdiko kalea, 4
48160 Derio
Tel.: 94 454 37 99



Kale garbiketa | Hondakinen bilketa eta garraioa | Ur eta estolda sareen mantentze lanak |
Hiri-altzarien mantentze lanak | Lorezaintza zerbitzuak | Eraikin eta lokalen garbiketa |
Hondartzen garbiketa zerbitzuak | Garbiguneen kudeaketa eta mantentze lanak | Lurzoruen
deskontaminazio lanak | Ingurumen-aholkularitza | Beste zerbitzu batzuetarako, galdetu.

Astintze kalea, 6-A, 1. solairua, 48.340 Derio
TEL. 94 424 38 34

"Biokaz aizkolari on bat egin ahalko zan"

ARITZ OREGI ETA BEÑAT LEKUE | aizkolariak

Aritz basozaina da, eta Beñatek basoko enpresa baterako egiten dau lan. Biak Larrabetzukoak dira eta, besteak beste, herri kirol batek batzen ditu: aizkolaritza. Txapelketetan banaka zein bikote moduan ibiltzen dira, eta horrezaz gainera, plazetan be alkarregaz dabilz jente-aurrean erakustaldiak egiten.

t/a: Itxaso Marina

Noz eta zelan hasi zinien azkolari-tzan?

A: Orain dala 10 urte inguru. Urriko azokan, lagun baten kontrako postura egin neban plazan eta ordutik hona nabiltza azkoreagaz.

B: Ni, 22 urteagaz, orain dala zortzi. Aritzengana etorri nintzan probetan eta engantxau nintzan.

Zelangoak ziran hasierako entrenamenduak?

A: Etxeko teilatuko hage zaharrak aprobeixatzen genduzan entrenetako. Untzez beteta egozan, etxeko azkoreagaz... pentsa daizuen! Gero Larrabegaz, Bizkaiko txapelak izan zirenez, hasi ginan entrenetan eta berak irakatsi euskun ebagia zelan egin, egurra zelan ipini... Garai hatan ez genduan behar moduko azkorarik eta Interneten topau genduan non saltzen ziran. Asteburu baten Urnietara joan ginan txangoan, azkorak erostera.

B: Erakustaldia euki genduan Goikoelexalden, bikoteka, Larrabegaz eta Flores nafarragaz, eta azken honek esan euskun

A: "Astiro joan gara hobetzen. Beraz, gauza barriak topetan dozuz beti, eragingarriak"

bere etxera joan ahal ginala entrenetara. Denporaldi baten beragaz be ibili ginan.

Zergaitik engantxau zinduezan?

B: Bada, nobedadeagaz hasten zara, gustau egiten jatzu eta segidu egiten dozu.

A: Gure kasuan, oso astiro joan gara hobetzen. Beraz, gauza barriak topetan dozuz beti, eragingarriak.

Entrenetako baldintzak, adibidez.

A: Ebagia egiteko, azkora bi behar dira: bata enborra kanpoaldetik ebagiteko eta pisu handiagoa daukana; eta bestea barrukaldean erabilteko, txikiagoa eta pisu gitxiagokoa dana. Kanpoko azkorak nahiko onak daukaguz, baina oraindino ez daukaguz barrukoak. Azkorak ondo landuta egon behar dau, fin... eta ondo prestetan ekian jentearengana erosten genduzan hasieran. Orain Beñaten aita dabil azkorak



B: "Bardin deust bosgarrena zein bigarrena izan, baina gustura geratu"

konponduten, ea gure kabuz lortzen dogun. Ez da erraza.

B: Beste alde batetik, edozer ebagiten genduan hasikerean. Gero, pagoak Nafarroatik ekarten hasi ginan. Iparraldetik be bai... Bizkaian ez dagoalako. Merkea ez da; prezioak hornitzaileen arabera dira. Ebagiten dogun egurra etxerako erabiltzen dogu, eta sobran dagoana saldu. Horrezaz eta erakustaldiei esker, atera dogunagaz parra egiten dogu urte amaieran.

Eta zuek, aizkolari moduan.

A: Nik ebagietan igarri dot hobekuntza. Egia esan, hobe naz barrukaldeko ebagiak egiten kanpoaldekoak baino. Hori hobetu beharko neuke, eta kilo batzuk hartu, indar apur bat gehiago eukiteko.

B: Nik kolpeetan hobetu dot, baina ebagietan ez naz oraindino ondo molda-

Nire Autoocasion NA

IMPORTAZIOA ETA SALMENTA

GERNIKAKO ARBOLA 10 (TRASERA) 48160 DERIO-BIZKAIA
 Mobilak: 686 97 06 41 - 649 16 77 12
 Telefonoa-Fax: 94 454 51 92
 www.nireautoocasion.com info@nireautoocasion.com

Gorbeia, 7 Behea
 48170 ZAMUDIO (Bizkaia)
 Tel.: 94 452 21 41
 Faxa: 94 452 21 42
 www.gestionzamudio.com
 gestionzamudio@gestionzamudio.com

Gestión Zamudio

Aholkularitza Fiskala

Jon Vázquez García
 AKTUARIO-EKONOMILARIA



tzen. Barruko ebagia hobetu beharko neuke, eta sobran dodaz kilo batzuk Aritzi emon (kar, kar). Dana dala, bikote ona egiten dogu, bakotzak bere ezaugarriak daukaz eta bere aldea egiten dau.

A: Bai, biokaz aizkolari on bat egin ahalko zan (kar, kar).

Eta horren adierazle, aurtan Bizkaiko txapelketan lortu dozuen emaitzea: bigarrenak.

B: 2009tik hona daroagu bikote moduan, eta beti 7. postutik 5. postura artean ibili gara. Igaz, adibidez, lau bikote egon ginan minutu batera eta seigarrenak lotu ginan; eta aurtan hiru bikote egon gara minutu batera, eta bigarrenak. Ondo ibili gara; ea mantentzea lortzen dogun.

Alkarregaz ez zabilzenean, zelan entrenatzen doazue?

A: Txapelketarik ez dagoanean, entrenamentu luzeak egiten ahalegintzen naz; eta gero, txapelketa sasoian, laburragoak eta intentsidade handiagokoak. Serieak, abiadura hartzeko...

B: Nik astean bitan, txapelketarik ez dagoanean; eta astean hirutan, txapelketa sasoian. Udan, topera gabiltz lanean eta ahalegintzen naz domekatar egurra prest ixten, gero astean zehar entrenau ahal izateko. Egurra ondo prestau behar da, izan be, azkoreari hagin bat ateraten bajako edo harriren bat jotzen badau, akabo. Txapelketen arabera, diametro bateko edo besteko enborrak erabiltzen dira, 25, 40, 67... eta txapelketa sasoian hareetara egokitzen ahalegintzen zara entrenetako orduan; neguan bardin deutso handiak edo txikiak diran.

Igoteko itxaropena

Aritzek eta Beñatek espero dabe, datorren urtean, aizkolaritzearen hiru hitzorduetan euren onena emotea: Urrezko azkorea eta Euskal Herriko eta Bizkaiko txapelketak. Txapelketetan bikoteka zein banaka ibiltzen dira: bigarren mailan, Bizkaikoan; eta hirugarren mailan, Euskal Herrikoan. "Datorren urtean, bigarren mailako txapelketea irabazteko itxaropena dot. Ea mailaz igotea lortzen dogun", dino Aritzek. Larrabetzuarek aizkolarien artean dagoan giro ona azpimarratu dabe, eta horren adibide Nafarroako aizkolariak izandako esperientzia ipini dabe. "Hara idea asko euki barik joan ginan eta azkora onak itxi euskuzean, egurra ipini euskuen... eta ordainean ezer eskatu barik".

Aizkolaritza sasoi onean dagoala uste dabe. "Olasagasti eta Larretxea moduko aizkolarien ostean, urte asko egon dira entrenatzeko aizkolaririk egon ez dena. Baina orain fuerte datoz, Atutxa, Iker Vicente...". Maila ona dago aizkolarien artean eta onenak nortzuk diran esateko, ez daukie zalantzarik. "Floren Nazabal eta Aitzol Atutxa".

Txapelketak ala erakustaldiak?

A: Niri txapelketea gustaten jat gehiago, nahiz eta beti akatsen bat egin. Politagoa da.

B: Politik diran erakustaldiak be badagoz, jente onagaz egiten dozuzanak, adibidez. Aurtan Atutxa eta Olasagastigaz egin dogu erakustaldia Morgan; Aritz Olasagastigaz, eta neu Atutxagaz.

Zelango helburuak daukazue kirol arloan?

A: Nik 37 urte daukadaz eta uste dot ezin izango dodala gorago egin. Bizkaiko txapelketan aurtan izandako emaitzea hobetzea be gatz ikusten dot.

B: Bai, Atutxa (irabazlea) dagoan bitartean, gatz izango da lehenengo postura ailegatzea. Nire helburua, gustura nagoan bitartean, segitzea da, eta batez be etxean entrenetan doguna plazan erakustea. Batzuetan, urduritasunagaitik, ez dozu zure maila emoten. Bardin deust bosgarrena zein bigarrena izan, baina gustura geratu.

LOREGARBI GARBIKETA ZERBITZUAK

Garbi-ikusiak, onakorrak
Auzokorren komunitateak
Mantentze gubi-ikusiak
Bulegoak eta lokalak
Otrai amariako garbiketa
Baserriak
Zehar bilaka

Besaide Plaza, 1 - Bº Aldekoa
48160 DERIO (Bizkaia)
loregarbi@euskalnet.net

Tel: 94 406 49 92
656 712 443
Fax: 94 406 49 93

t i k
t a k

EGUNEKO MENUA
lehenengo platera
bigarren platera
postrea
ogia
edaria

9€

Bestorena 5, Behea 48160 DERIO
T: 94 454 55 55

Izpilen
PARAFARMAZIA BELAR-DENDA

Sabino Arana, 3 Iorja - 48150 SONDIKA (Bizkaia)
94 655 80 00 - 689 99 88 43 - izpilen@gmail.com

LEIRE BEGOÑA
ULE-APAINDEGIA

MUNCHALDE ETORBIDEA, 20
48160 DERIO
94 454 26 32

Jarrai jarraigu Facebooken

TRIPPY
TABERNA

Espezialitatea:
GIN TONIC

Beheko kalea - DERIO

Sabin Askolizaga
Asesuragur agentzia
Allenz
609 475 746

Mixaine, 6 behean
48150 Sondika-Bizkaia

T.: 94 453 18 07
Faxa: 94 453 60 27

Euskaraz betetako irudiak



**berba
lasun**

INFORMAZIOA:
Telefona:
 635 75 35 95
E-mail:
 txorierri.berbalaguna@gmail.com
Bloga:
 www.aikor.com/txokoa/berbalagun

Ikasturte hasiera ezin hobe eduki dugu berbalagunok: antzinako kartelak ikusteko aukera izan dugu, perretxikotan ibili gara, ortuan, seme-alabekin olgetan... bazkariak antolatu ditugu, Gerra Zibileko aztarnak bisitatu ditugu Larrabetzun, ur ibilbidea egin dugu... Eta hori guztia euskaraz. Urtarriletik aurrera, zu ere gurekin!



 **ZAMUDIO**
Loteria Nazionale

Leizaola L. plaza, 7

Tel.: 94 452 09 59

Faxa: 94 656 69 95

josuastorkiza@gmail.com



TALLERES JUAN ANDRES

AUTOMOBILAREN ELEKTRIZITATEA ETA MEKANIKA
 PUNTUAN JARTZEA

Torrelarreagoiti ind., 8 - 216 Pab.
 Tel.: 94 452 07 09

48170 ZAMUDIO (Bizkaia)



t: Juan Luis Goikoetxea / i: Aritz Albaizar

Auzolana auzokoek elkar harturik egiten duten lana da; Euskal Herrian aspaldiko tradizioa du, eta horko filosofia ederto baten adierazten digu atsotitzak: *Auzolan, Etxean jan eta kanpoan lan.*

Atsotitzaren hariari jaramon eginik aztertuko dugu labor Institutuaren inguruko auzolana eta Baserri Antzokiarena. Bitzuetan, hasierako batzarra egin zenetik lehen harria jarri zenera, gutxienez, bost urte pasatu izan dira; bost urtez egin da behar auzo lanean. Txorierri Institutua sortzeko lehen batzarra 1977ko otsailean egin zen, eta bost urtegarrenean abiatu zen eraikuntza.

Baserri Antzokia –irabazteko xederik gabekoa–, ostera, fundazio legeaz Andres

Txorierri BHI Institutua eta Baserri Antzokia (I)

Urrutia notarioaren bulegoan 2010-06-28an sinatu zen, eta lehen harria 2015-10-30ean jarri. Zer auzolan egin da bost urteko epe horretan? Hara: orubea lortu; arkitectoaren proiektua gauzatu; inbertsiorako dirua bankuetatik nahiz partikularrengandik eskuratu...

Baina, zein da artikulua honetan Baserriaren eta Institutuaren arteko lotura? Bada, auzolana eta euskararen eta euskal kulturaren biziberritzea.

Euskararen legearen mende-laurdeneko balorazioa egiterakoan, 2007an, M.

Zalbidek zioen: *Desoreka handia dago eskolan eta eskolaz kanpoko jardun-guneetan egin denaren artean. Eskolaz kanpoko jardun-guneetan, harreman-sareen eta solaskide-multzoen falta sentitu izan da maiz eskolaren lana osatzeko: kirolean, astialdi antolatuan, gazteentzako zerbitzuetan eta abar.*

Baserri Antzokia –euskarako elkartearen eta euskaltzaleen egitasmoa– Txorierri Institutuaren –eta eskolen– urteetako ahalegin bikaina osatzera dator eskolaz kanpoko jardunean.

FRUTAK BARAZKIAK

Bertoko barazkiak eta sasoikoak
Fruta goxoa eta kalitate handikoa
Jenero freskoa egunero
Txartelarekin ordain daiteke

30 euroko bonoak opari

Gaur egun arte
4.500 euro banatuta

Gaztelumendi, 3 - behea
48195 Larrabetzu
94 455 89 19

ASADOR FUENTENE berria
“lur eta itsasoko baserria”

Gosariak
Afariak
Enpresa-bazkariak
Ekitaldiak
Jantoki pribatuak

ESPEZIALITATEA:
Okela eta arraina
txingarretan erreta

LEKUNBIZAUZA 26
ZAMUDIO (BIZKAIJA)
94 452 23 79
www.asadorfuenteneberria.com

HORTZ KLINIKA

Idoia Zubietza

Osasun-zentroa & Horta-esteka
HORTZ-PLANTEAK - ORTUDONTZIALESTENAKA
HARREMAN ZEPHILDUNAK

Dr. Amara kalea, 11 - 1. eak. 48011 BILBO • Telefonoa: 94 441 63 22
Urbe plaza, 1 • 48170 ZAMUDIO • Telefonoa: 94 452 13 70

OPTIKA IKUSLAN

Arbolantxa kalea, 5, behea
ZAMUDIO
Tel.: 94 452 28 18

Tel./faxa: 94 452 06 64
Torrelairagoiti ind. P-7
48170 Zamudio (BIZKAIA)

Restaurante
JANA - JATETxea



Eguneko menuak
Menu bereziak
Jaunartzeak, bataioak eta ezkontzak

Toffe saltsea egiteko, hurrengo jarrai-bideak beteko doguz. Lehenengo eta behin, azukereari ur apur bat botako deus-sagu, bustiteko, eta surtan ipiniko dogu. Su ezitan eukiko dogu, egosten, harik eta gorritzen dan arte (ez erre). Ondoren, esnegaina botako dogu eta egurrezko koilarakada bategaz eragingo dogu, harik eta azukre gogortua desegiten dan arte eta saltsea apur bat loditzen dan arte. To-fee saltsea sagarrari ganetik bota geinkio, edo plateraren ipini geinke sagarra, saltse-aren gainean.



a: cocinaland.com

Lebatza, mandarina saltsagaz

Errezetak: Maite Lekerika, sukaldaria

Osagaiak (4 lagunentzat):

- Lau lebatz-trontzo (bakotxa 250 gramo-koa)
- Tipulina bat
- Mandarina bi
- Koilarakada bat ezti (aukerakoa)
- 100 ml ardao zuri
- 50 g mahats-pasa
- Koilarakada bat sagar-ozpin
- Orioa
- Gatza

Prestetako area:

Tipulina txikitu eta zartagin baten erregosiko dogu orio apur bategaz. Mandarinak zuritu eta txikitu egingo doguz, eta tipulina eginda dagoanean, mandarina-zatiak be botako doguz zartaginera. Eztia, ardaoa, ozpina eta mahats-pasak be gehituko doguz. Hamabost minutu inguru eukiko dogu surtan. Bestalde, lebatz-trontzoak laban edo plantxan egin geinkez. Horreen gainean, saltsa beroa botako dogu. Gura izanez gero, saltsea irabiau geinke.



a: thecooknextdoor.blogspot.com

TXORIEKRI MARMOLDEGIA
Sukalde eta bainugeletako harriak
Fatxadak • Atariak • Hilerrak

Torrelarragoiti ind., 7 B P. - 2. nabea
48170 Zamudio (Bizkaia)
T./F.: 94 608 01 41-2

GORBEIA MERTZERIA

Gorbeia kalea, 7
ZAMUDIO
94 855 90 06

PATXI KOOP

PROIEKTOKOOPERATIBA ELKARTEA
Nabarra 300000 - Euzkadi 1. 48170 Zamudio (Bizkaia) - Tel: 944 522 587 - info@patxi.coop - www.patxi.coop

Jatetxea SAN ISIDRO

EUSKO ORELETAN ESPEZIALIZATUA ETA ETXERO GORROGINTZA APARTA
ESKONTZAK, BATAIOAK, JAUNARTZEAK

Karta zerbitzua - Laneko zerbitzuak - Jantoki pribatuak
Jantoki bakoitzean 180 toki - Sukaldaritza tradizionala

Telefonoa 94 454 07 58
Fax 94 454 14 12

Mungialde etorbidea, 25
48180 DERIO

JB Construcciones-Reformas
IÑIGO BARCENA
Igeltserotza orokorra

Especializatesa:
Xafra-lanak
Zoruak

944522510 - 665703312 - 652772016

luz zamudio
ARGI APARATUAK

Nekazari kalea, 4 (lonja) Tel./Faxa 94 452 11 60
48170 Zamudio - Bizkaia



LARRABETZU TURBERA
EUSKAL HERRIA TURBERA

ARETXA BALA

ANDRA MARI KALEA
TEL.: 94 455 84 64



IBARRONDO

FISIOTERAPIA
JARRERA-BERREZIKETA
ESKU-TERAPIA

MITXINE, 3
48150 SONDIKA
Tel. 94 453 92 00
Mugikorra 617 674 202
Mugikorra 688 601 871
fisiobarrondo@gmail.com


LA GUN KOR

aretxalde, 68 - 48196 Iezama
t. 944 556 538 - faxa 944 555 084
lagunkor@hotmail.com

AMOLEKULARITZA FISIKALA LABORALA KONTABLEA
ZERBITZU BULEGOA

ZORRIZKETAN
LEZAMAKO EUSKERA ELKARTEA

**Gabon zoriontsuak
lezamar eta
txorierritar guztioi**



BATAK BESTEAGAZ LEZAMARROK EUSKARAZ
Tel.: 94 455 60 76

HARRI-BILBO

HARGINTZA OROKORRA

LEHIO-ERTZEKO HARRIAK - KANTO HARRIAK - BARLASAIK - MAILAK
ARBUAK - TXIMINIAK - HARRI-HORMITUAK - XAFLA-LANAK

HARROBIA: DURANGON
E-mail: recupresaharribilbo@euskalnet.net

LANTEGIA:
Kurtzea Industrialdea, z/g - 48196 LEZAMA
Tel. 94 452 10 71

ERAKUSTOKIA:
Itxaropena, 2 - 48100 MUNGIA
Tel. 94 674 33 40

auto-escuela SONDIKA

Gidabaimena eskuratzeko izapideak
Irakaskuntza teorikoa, praktikoa eta ikus-entzunezkoa

Mateo Bidaurrezaga 2
Telefonoa 94 471 00 10
48150 SONDIKA Bizkaia

Plaza iturriondo, 2 (goia)
Telefonoa: 94 445 90 67
48007 Zurbarranbarri - Bilbo

Txorierrit Et., 30
48150 SONDIKA

94 453 35 05
667 78 63 31



PEÑA ATHLETIC
BETI HARROBIA



ANBER KLINIKA

ODONTOLOGIA
PODOLOGIA

Txorierrit etorbidea, 26
48150 SONDIKA
www.anberclinika.com

Tel. 94 655 78 75 - 688 89 82 82

ALTZARA

Sondikako euskara elkarte

ORIONAK
RTE BERRI ON!



Zer irakurri?

Jose Angel Mentxaka (Derioko Liluratura)

Egilea: Mikel Peruarena Ansa

Argitaletxea: Susa

Liburu bat norberak irakurtzeko arrazoia leku ezberdinetatik heldu daiteke. Beharbada, Durangoko Azokan asko saldu delako, egilea gustukoa duzulako eta berria noiz aterako duen zain zaudelako, lagunaren batek gomendatua... Baina hau beste bide batetik etorri zait. Gidatzen nindoala, irratan Mikel Peruarena idazleari egindako elkarrizketa entzun nuen kasualitatez. Niretzat ezezaguna zen idazlea eta *Su zelaia* bere lehen nobelaz berbertan zeuden. Nobelaren hasiera komentatzen zebiltzan eta gaiak nire atentzioa piztu zuen.

Euskal Herriko iparraldeko hainbat herritan, Iholdi, Sara, Ezterenzubi, Donibane Garazi, Kanbo, Monjolos... elizetako ez-kilen errepikak jo eta jo dabiltza. Baina oraingoak ezezagunak dira, herritarrek

Su zelaia

gerrara deitzeak dira, beleak inguruan hegaz dabiltzan bitartean. Lehen Mundu Gerra hasi da European, eta gazte eta ez hain gazte guztiek partitu beharko dute berehala. Gehiengoak ez doa triste. Abesti, otoitz eta "Biba Frantzia" garrasien artean pozik doaz laster itzuliko direlakoan, alemanak menderatuta.

Irratian entzun eta egiaztatu dudanez, ez dago jakiterik zein izango den nobelako protagonista. Behin Belgikako lurretara helduta eta erreketan (lubakietan) sartuta, gazteak hiltzen doaz. Apurka-apurka. "Obus bat zapartatu, eta bertze orduz...". Iparraldeko edozein herriko plazatan dauden monumentuetako "morts pour la patrie" horiek dira protagonistak.

Liburua erosi eta irakurtzen nenbilela Euskadi Literatura saria eman zioten nobela honi. Beste arrazoi bat irakurtzeko? Beharbada bai, baina jakin ezazue egi-



leak, Mikel Perurenak, ez zuela saria onartu. Ez ei dago ados literatur maila horrelako sariekin epaitzearekin.

Dena den, saritua edo saritu barik eta apur bat kostata erabiltzen duen ekialdeko euskaragatik, gustura irakur daitekeen nobela da *Su zelaia*.

Ala-apaindegia
M^a Antonia Llodio
Tel.: 94 452 02 70
48170 ZAMUDIO (Bizkaia)

OSTEOPATIA-ZENTROA
ORDEZKO TERAPIAK
Lasai
Luis M^a Asensio
Terapeuta naturopata
Larrabari, 1 lonja - 48160 DERIO
Tel: 94 454 10 28 - Sakelekoa: 655 74 24 69
osteopatialasai@gmail.com

MARMOLGINTZA
GOYO
SUKALDE-GAINEKOAK OIRAK HILEBRIAK
Ugaldeguren 1 ind. 18-B nabia
48160 Derio, Bizkaia
T: 94 454 02 93 - Faxa: 94 454 50 63



Urte
zoriontsu
eta
euskalduna
opa dizue

arrekekili

Larrabetzuko euskara elkarteak



POLITENA TABERNA

Andra Mari
Larrabetzu, Bizkaia
tel.: 94 455 84 07



Aliprox

Ondo pasa jaietan!

INES JANARI-DENDA
Iturrikoetxea, 3
48195 Larrabetzu
T: 94 455 84 33



LARRABETZUKO BATZOKIA

Eguneroko zeln asteburuko menuak
Menu bereziak

Askatasunaren enprantza, 3
94 455 72 94



**Carrefour
express**

ORDUTEGIA
Asteleheneretik ostiralera arte
9:00-14:30 / 17:00-20:30
Larunbatean
9:00-14:30

Pago kalea, 5
48170 ZAMUDIO

FOTERI TABERNA



Andra Mari Kalea, 22
Teléfono 455 80 98

48195 LARRABETZU-Bizkaia

IRUSTA TABERNA

EGUNEROKO MENUAK
GAUEZ / MUSIKA ETA PARRANDA

Gabonetan, etxean gura doguz

LARRABETZU
Tel.: 94 455 84 77



Moro's Pub

Ikastegi homologatua

**LARRABETZU
MUSIKA ESKOLA**

**ZORIONAK ETA
URTE BERRI ON!**



Errebale, 7 behea
94 455 70 66



ETORKI TABERNA

Eguneroko menua
Asteburuetan menu bereziak

Andra Mari Kalea, 1
Telf.: 94 455 81 95

48195 LARRABETZU
(Bizkaia)

Opariak banatu ditugu Aikorlagunen artean eta saridunak zerrendan dituzue

Hurrengoa zeu!

- Koikili Aterpetxean egonaldia
AINHOA KAMIRUAGA (Zamudio)
- Errigora saskia
JOSÉ MANUEL DÍAZ ZORROZUA (Bilbo)
- Saskibaloia partida ikusteko sarrerak
JOSÉ ÁNGEL MENTXAKA (Derio)
- Txerra Rodríguezek idatzitako *Sutondoko kontuak* liburua
ITZIAR BENGOA (Larrabetzu)
(Txerra Rodríguezen eskutik)
- Gotzon Barandiaranek idatzitako *Gidariaren okerra* eleberria
INMA BILBAO (Lezama)
(Gotzon Barandiaranen eskutik)
- *Korrontzi dantzan* lana
MARIPI AGIRRE (Larrabetzu)
(Baga-bigaren eskutik)
- Bertokoren *Jota'n'rec* diskoa
SONDIKAKO INAUTERIAK TALDEA (Sondika)
(Bertoko taldearen eskutik)
- Txapelpunk taldearen *Punkaren semeak* diskoa
EDURNE ARETXABALETA (Zamudio)
(Baga-bigaren eskutik)
- ETS taldearen *Beldurrik ez* diskoa
BELEN GANA (Loiu)
(Baga-bigaren eskutik)
- Enkore taldearen *E* diskoa
IRATXE ABURTO (Zamudio)
(Baga-bigaren eskutik)
- The Uski's taldearen azken diskoa
SORKUNDE LANDETA (Zamudio)
(Baga-bigaren eskutik)



Egin zaitez Aikor!lagun



Izen-abizenak: _____

Helbidea: _____

Telefona: _____

e-posta: _____

IBAN+Bankuko zenbakiak: _____

Urteko kuota: _____

Aldizkaria jasotzen duzu? _____

Sinadura _____

30 euro _____ Beste bat _____

Orri hau helbide honetara bidali:

Aikor! Aldizkaria

Aresti kalea 2, behea - 48170 - Zamudio



15/1999 Lege Organikoari jarraituz, hau jakinarazten dizugu: formulario honetan sartzen dituzun datu pertsonalak fitxategi batean gordetako dira. Fitxategiaren erantzulea TOTOKAN TXORIERRIKO EUSKARA ELKARTEEN FEDERAZIOA da eta datuok kudeatuko ditu. Kontrakoa esaten ez diguzun bitartean, zure datuak kudeatzeko baimena dugula ulertuko dugu. Dena dela, edozein momentutan datuok eskuratu, baliogabetu eta zuzendu ahaliko dituzu. Horetarako, helbide honetara jo beharko duzu: ARESTI KALEA 2-BEHEA, 48170 ZAMUDIO (Bizkaia).



TXORIERRIKO
MANKOMUNITATEA

**Txorierriko Mankomunitateak
eta Udalek zorionak eta urte
barri on opa deutsuez**



Derio



Lezama



Loiu



Larrabetzu



Sondika



Zamudio